

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Antton Valverde

«Xenpelar eta Iparragirreraren sintesizate nahi nuke»

Antton Valverde euskal kantari ezaguna dugu. Ezaguna, nahiz eta izkutu antzean ibilli izan bere lehen denboretan. Anttonek nekez eman dio baiezkoa zabalkundeari, bere kantuak diskoetan jartzeari, profesional bezala agertzeari. Orain urte hasi zen «Oskarbi» taldearekin lan egiten. Herri kutsu haundikoa dugu Valverde margolaria zanaren seme hau.

—Zure familian pintura eta musika zale zerate. Nun errotzen da zaletasun hori?

—Beste familia askotan bezela, nerean ere arte tradizioari jarraitu eta gainera landu egiten da. Pentsa zazu ehun urte igaro dirala nere aitonen aitak irarkola bat martxan jarri zuenetik. Era hortako lantegi batetik artista asko pasatzen da; arteaz harreman haundiak izaten dira; egiten dan lana berbera ere, arte besterik ez da. Beraz, Regoyos-en egunetarik gaurregunera arte, erti lan asko egin du nere familiak. Baditeke ba, lehendik zegoen sensibilitate eta zaletasuna horretxekin landu eta lagunduta aurrera ateratzea.

—Bertsolariak maite dituzu. Zer da bertsolaria zuretzat?

—Euskal Herriak gaurregun duen bere nortasunaren agerpenik interesgarrienetarik bat.

Toki berezia betetzen du gure literaturan; baiña beste gauza asko ere bada. Zaila da horrelako gai batetaz lerro gutxi batzutan ihardutea; gainera galdera hori azkoz hobe da Lekuonatar edo Zabalatar bati egitea ezen ez eta neri.

—Zaletasun honetan, zure aita zanak ba al du zer ikusirik?

—Bai horixe! Nere euskal zaletasun guztian eragin handia izan du nere aitak. Eta bertsolaritzari buruz, berarekin entzun nituen bertsolariak lehenbiziko aldiz; Xenpelar kantatzen hasi nintzanean ere, aitak eskatu eta bultzatuta izanduan; Errenterian berak eman behar zuen hitzaldi baterako kantatu nituen Xenpelarren zenbait bertso.

Orduz geroztik gero eta gehiago maite dut bertsolaritza.

—Aitak Herriko gaiak pintatzen zituen; zuk bertsolarienak dituzu kantatzen. Aitaren kuadro eta zure kantuen artean zer harreman dago?

—Nik bertsolariaren gaiak bakarrik ez ditut kantatzen, baizik eta herriko beste abesti asko ere bai. Hori horrela bada herrizale eta maitale naizela da; eta nere aita zanak euskal gaiak erabili bazituen bere kuadroetan, arrazoi berorrenatik zatekeen. Zuk eta nik eta beste euskaldun askok bezala, baikoitzak bere trebetasunak eskaintzen ditu.

—Zer diozu Xenpelarrez?

Konpara ezazu Iparragirrekin. Zue nor zaitugu, Xenpelar ala Iparragirre?

—Xenpelarrez, bere denborako euskal jakinduri eta izatearen bilduma harrigarri bat izan zala, pentsatzen dut; benetako bertsolaria gainera. Iparragirre berriz inprobisazioa falta zitzaion eta kitarra sobera zukeen bertsolari izateko.

Biek kantatu zituzten herriaren kezak eta herriarenganako sentitzen zuten maitasuna; baiñan buru-estruktura desberdinez.

Nahiz eta Xenpelar sakonagoa, filosofoagoa izan, biok ditugu jator eta maitagarri.

Xenpelar ala Iparragirreraren antzeko ote naizen? Ez dakit, baiña bion sintesi izatea gustatuko litzaidake.

—Herriko doinuak, hau da, bestek egiñak kantatzen dituzu asko. Ba al duzu zerorrek egiteko asmorik?

—Bai; orain arte gehien egin dadana abesti zaharrak billatzea izandu da; Azkue, Donostia, Riezu etab. ondo ezagutzen ditut. Baiñan horiek bildutako abestiak kantatzen ditudan bitartean, herriko kutsuz betetzen naizen bitartean, nere estudioak aurrera doaz. Harmoniak ari naiz "jo ta ke" zer baitetarako preparatzen. Orain arte doinu eta abesti zaharren agertzaila bat izandu baldin banaiz ere,

gero zer izango naizen, geroak esan beza.

—«Ni ez naiz gerraren zale baizik pakearen alde». Zer pake eta zer gerra?

—Gerra luze bat bukatu ondoren, ez dakit zenbatgarren Karlos etorri omen zan Euskalerrira gure jendea berotu nahiz, beren alde berriz borruka zedin. Gerra horren kontra kantatu zuen Xenpelarrek.

Bestalde, gaurregun kantatzen direlako, baten batek Xenpelarren hitz horiek gaizki ulertu baditu, ez dedilla apura, zensurak galerazi egin bai dit! Zuk aipatu duzun estrofa hori kantatzea. Ez bide naiteke gehiago ager edozein eratako pakearen alde.

—«Oskarbi» eta zuk zer harreman dituzue? Noiz ezker zabilzate elkarrekin? Zer irabazi eta zer galera daude jokabide hortan?

—Orain urte bete Oskarbi deitu ninduen bere gudaritza betetzera joan behar zuen mutil baten ordez kantatzen hasteko. Baiñan ordu ezkerostik gauzak asko aldatu dira. Jakin ahal izan dut seriooki lan egiten duen talde bat, nora iritxi ditekian. Horrengatik, Oskarbi lan egitea esperientzi bat baiña askoz gehiago izan dela esan dezaket. Inakik bere gudaritza bukatzen duenean ni ez naiz orain bezain beharrezkoa izango. Baiña beste era bateko lana egiteko preparatzen ari naizenez gero, pentsatzen dut Oskarbiarekin lan egin dezakedala; eta badakite Oskarbiok ni beretarra nautela eta edozer gauzatarako ni prest nagoala.

—oO—

Aurrera, ba, kantari langille hori! Badauka Euskal Herriak zu bezalako gazte ikasi eta herrikoien beharrik.

ERRIALDE



CA

BERTSO BERRIAK NERE BORDATXOTIK

Cuadra'tar Pilar idazleari

— 1 —

Jauna, munduan itxu gera ta gezurra degu gidari naiz ta zerutik gizonari zuk ainbeste dir dir bidali. Kristau zintzoak eskatzen dute egin zazula mirari gure begiak irikitzea egiairen argiari.

— 2 —

Ez baldin bada ontzat artu nai egia aitortzen dunik ez genezake esan gezurra gure lagun ez degunik. Eta inortxo ez deike izan gezur ta egin lagunik gezurrekin ez dago beraz egiarekin dagonik.

— 3 —

Gaur egunian kristau biotza zuzentasun egarri da legorte beltzak eraman gaitu gizonak une larrira. Gure baratzan landare onak biziko baldin badira il arteraño luzatu gabe goazen iturri garbira.

— 4 —

Egia zugar daukazu Pilar idazle argi zerana eta bearrez dan erri oni ainbeste dizdir emana. Esker beroko gogoarekin zuzendu naiz zuregana beldurrik gabe agertu nairik barruan senti dedana.

— 5 —

Goi urdiñean izarren gixa Jaunak ez al zaitu jarri kristau zintzoen eredu eta egien erakuslari. Entzuten jartzen geradenean zure biotz juxtuari argi berriak sortzen zaizkio gure espirituari.

— 6 —

Biotz zuzenen egitekoa Pilar, beti zure lana gaur gizon askok agertzen degu barrendikan ez gerana. Itxurarekin kaltetan goaz gure munduarengana ta argitara erden bear da gezurrez estaltzen dana.

— 7 —

Kristau izena daukagun gizon asko gera azal utsak nola ixildu aurrean garbi ikusten ditugun gauzak Ori dala ta zure itz asko ez dira gero amutsak premian dagon tokian ongi astintzen dituzu autsak.

— 8 —

Gure eliza barruan ere badago azalzeria ta zorigaitzez indartu zaigu farisaitarren erria. Orregatikan sarritan zorrotz jarri dezu arpegia indartu baño zapaldu geigo egin dalako egia.

— 9 —

Gure artean pake santua ez degu gutxi aipatzen eta egia lasaikeriaz askotan ez da aitatzen. Bañan zentzudun baldin bagera ondo kontura gaitzen zuzentasunik maite ez dunak pakerik ez du maitatzen.

— 10 —

Etsaiak argi daudela eta guri lepotik eltzeke ez daukagula gure biziak arrisko ortan jartzeko. Beraz ez bada adorerikan gurutze ori artzoko ez gera iñoiz ere izango Jesukristoren antzoko.

— 11 —

Kristau sentitzen baldin bagera guretzako da burruka naiz ta zipriztin gaiztoak artu beti egiaeren truka. Gure erriko nortasun onak oso bizi motxa dauka ez bagerade bildurrik gabe jartzen gezurren kontra.

— 12 —

Jaun onak eman badizu, Pilar ainbeste doai berezi zure egia baztertutzerik iñoiz ez dute merezi. Gogoz lumari orri txurian izkiak egin erazi euskaldun askok irakurtzen du naiz zuk erderaz idatzi.

Mujika'tar Teodoro (Billabona)

Etorri zan, ikusi zuen, eta... gel-ditu egin zan.

Zarautzek ainbat zor dion Madoz istorigilleak egin zuen au.

Ta... beste zenbatek geroztik! 1865'garren eta 1856'garren ur-tetan, Española erregin Isabel bi-garrena udatiar izan zan Zarau-tzen.

Zarautzek abegi ona izan du be-ti arrotzentzat; etxean bezela aur-kitu izan dira kanpotarrak.

—oOo—

Gaurko lautatik bat etzan Za-rautz Paskual Madoz bertako bi-zilagun izan zanean.

Arrantzalez eta nekazariz osatu-tako errikoa.

Madoz politiko ezaguna zan; li-beral sailleko politikoa, ta aginpi-derik aundienak izan zituen, bo-lara batez.

Madoz'en denborake Zarautz kar-lista zan erabat.

Alare, Madoz'ek etzuen aurkitu irriparra ta maitasuna besterik.

—oOo—

Eztala atzo goizekoa, esan nai genduke, Zarautzek arrotzarentzat, kanpotarrarentzat duen begirape-na.

Emengo gizatasuna ikusirik, ala-ko erantzuna eman zuen Madoz politiko ta idazle bikaiñak.

Egun batetik bestera asi ziran Zarautzen alderdi onak egal guz-tietara zabaltzen.

Geroztik zenbat eta zenbat ote Madoz'en bidea jarraituak?

Etorri, ikusi ta geratu.

Berrogeitaka urtetan datozen fa-miliak ezagutzen ditugu. Zarrak il ziran, baiña emen dotoz zintzo aien odolekoak.

—oOo—

Asko ta asko gogoratzen gera gerra aurrean Zarautzen urte mor-do batean bizi izan zan ingles zarraz.

Ura ere pasaran gertatu omen zan Zarautzen.

Ikusi bazuen ikusi zuen bai bapo lilluratu ere! Erria au artu zuen urte osorako ostatutzat.

Udarako etorri ta negurako joan, egiten dute txirringullu ta enarak (vencejos y golondrinas).

"Ingles zarra" bertan goxo. Aren-tzat etzan urte-sasoi txarrik Za-rautzen.

—oOo—

Orain berrogeitamabi urte iru milla bizilagun inguru giñan. Gu-txi ortik gora.

Danok ezagutzen genduen alkar; famili bat osatzen genduen, esate baterako.

Gutxi, askoz gutxiago gaur bai-ño orduko udatiarrak.

Jende aundikia, dirudun jendea. Española aristokrazi aundiak Za-rautz zuen kabi aukeratua.

Orduko Zarautz ala gaurkoa atsegiñago ta gustagarriago?

Ezin asiko gera au aztertzen, guztiok bat ez giñake etorriko-ta.

—oOo—

Gaurko Zarautzek ezituen alder-di zoragarri batzuk bazituen ordu-ko Zarautzek, baiña beste batzuk baditu gaurko Zarautzek ordukoak ezituenak.

Garbitasunean, erosotasunean, milla modutako aurrerapen bidez, erruz irabazi degu.

Orduko patxara, lasaitasun eta ixiltasuna; danok alkar ezagutzea, gorroturik ez izatea, famili bat osa-

tzea, ori zuen inbirigarri garai ar-tako Zarautzek.

Itota, presaka bizi gera gaur. Bi pauso emateko beldurrez, au-tomobillak noiz zapalduko gaituz-ten.

Erria, uda-partean bezin arrotza zaigu neguan. Olatu aundi batek artu gaitu azpian.

Eztegu alkar ezagutzen; eztakigu bata-bestearen berri.

Zarautzar batekin kalean topo egiterako, lau extremeño ta sei an-daluz aurkituko dituzu.

—oOo—

Gure iritzi apalean, azken urte-tan Zarautzen egin dan obrarik txalogarriena erria urez osatzea izan da. "Granada-errekako" urak ekartzea.

Urez aberats izateak zer balio duen ez gera konturatzen. Gerra sortu arte ezta konturatzen bat pakearen balioaz.

Gipuzkoar erri asko, zoritxarrez, berenak eta bi ikusten ari dira uraren urritasuna dala-ta.

Aietan egun batzuk igaro itzazu. Orduan konturatuko zera zeru bat utzita joan ziñala. Ala baita urez aberats dan erria.

—oOo—

Azken urtetan egin diran beste ainbat obra, ain txalogarri ote di-tugu?

Eztegu alakorik uste. Gizonak ge-ranez, gerekin ditugu akats eta utsegiteak.

Zarautzen ere, asmatu ta utse-gin, danetik egin da.

Gaurko lantxoa, ordea, ezta ma-xiaketa lana, ta utzi dezagun au beste baterako.

Ondartza berdingabea alde bat utzirik, zer zaizun gogozko uraxe eskeintzen dizu Zarautzek.

Mendizale bazera, bertan dituzu mendiak; itxasozale bazera, jo de-zakezu nai dezun aldera.

Ogeitasei kilometrorra, atzaparret-an daukazu Donosti, Gipuzkoako uri-burua.

Frantzia bixitatu nai bazendu, mugara eztezu ordubeteko biderik.

Or dituzu Elcano ta Urteta bai-llarak, Kamio ederrez osatuta, an-kez indartsu ezpazeunde. Une ba-tean an zera kotxean sarturik.

Aiako saila dalarik ere, zarauz-tarrak berebiziko joera dute Urda-netara.

Ta, Urdaneta ere gaur, kamio ederrez ornitua dago, oiñez baiño kotxez joatea naiago izan ezkeru. Badezu nun aukeratu.

—oOo—

Donostiko Euskal Festak ari dira urreratzen.

Turismo Etxea lanean ari da jo ta ke.

Trikitilarien txapelketa eratu du irailaren irugarren egunerako. Iru-garrena da aurtengoarekin. Trini-dadako Plazan ospatuko da, esan-dako egun ortan, arratsaldeko bos-teterdietan asiera emanik.

Gogo ori duten trikitilari guz-tiak izan ditezke barruko norgeia-goka ontan.

Auek dira emango diran sariak: Lenengoa, zazpi milla pezta ta esku-erakutsia.

Bigarrena, sei milla pezta.

Iruugarrena, bost milla pezta.

Laugarrena, lau milla pezta.

Bosgarrena, iru milla pezta.

Milla pezta buruko, sari gabe gelditzen diranei.

—oOo—

Trikitilari bakoitzak lau joki (lau pieza) entzuneraziko ditu. Berak nai dituenak.

Bete bearreko baldintza (kondi-zioa): euskal senazkoak izan dite-zela; dantzarakoak, biribilketak edo abar. Bestelakorik ezta ontzat emango.

Soiñujoleari lagundu bear dion panderojotzailleak ere, kantatu nai badu, euskeraz egin bearko du.

Trikitilari guztiak, txapelketari asiera eman baiño orduerdi bat lenago Trinidadako Plazan egon bear dute, zozketa egin eta zeñek noiz jo bear duen jakiteko.

Trikitilari bizkor eta iaioak ba-ditugu Euskalerrian, Jaunari es-kerrek.

Bein da herriro aukera ederra dute beren trebetasuna erakusteko.

Iraillaren amairuan egingo da sari banaketa. Egun artan errome-ri aundi, alai bat izango da Trini-dadako plazan, trikitilariarik one-nak soiñujole dirala.

—oOo—

Beste indartsu aundi bat agertu zaigu Gipuzkoan: Mendizabal bi-garrena.

Danok dezute abuztuaren ogeian Azpeitin izandako leiaketaren be-rriri. Mendizabal gazteak errez men-deratu zuen Yurrebaso bizkaitarra.

Erreztasun arrigarriz erabili zuen amalau arruko arri kubikoa. Oso bakanak dira ori egin lezatekenak.

Pixu aundiko arriekin, Endañeta alde batera utzirik, lan txarrek emango dizkio beste edozeini, iñun-go okerrik ezteula.

Denbora izango da testigu.

—oOo—

Aizkorarik eta aizkolaririk ezta aitatzen aspalditxoan.

Iraillaren amazaspian orratik bada neurketa bat izatekoa. Biña-biñakako neurketa.

Auek izaten dira ikusgarrienak, derizkiotenean txandatzea libre izat-en dute-ta.

"Agite" ta Arria irugarrenak osa-tzen dute bikote bat. Azpeitiarrak dira biak.

Kontrarioak, Santa Marina bai-llarako Jose Mari Garmendia ta Bidañiko Jose Mari Otaño izango dituzte.

Lana: amaseiña kana-erdiko nork lenago ebaki.

Bikote irabazlearen saria: ogei milla duro, amarna jokatzan di-tuzte-ta.

Basarri

Basarriaren alde
EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyiak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta aber

Torelavega'ko Perira Joan etorriak

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

NORK KUKURRUKU!!!



OLLARRAK
OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

LA CASA DEL CAFE

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

OINARRIKO KRISTAU TALDEAK

Lehen ere aipatu izan dugu gai au. Aipatzera goaz osterera ere. Jende asko erretzen ikusten ari gera eliz-erakundearen barruan. Pozik ekin zioten askok erakunde berritzeari, baina ezin dutela berritu ikusi dute. Zakurkeriaz eta txepelkeriaz beteak dira goikoen joko eta martingalak. Aundizki eta jauntxoak uzta-lagun izan nahi dute. Ez ditu ez erri-araozak eta ez langille-arazak egiaz kezkatzen. Loxintxa bidez eta itxura egite utsez iruzurtu nahi dituzte arazo oietaz arduratzen direnak.

Galdu da joko ortan sartzen dena. Galdu da gotzaien borondate onean, apaizbatzordearen eginahaletan eta parroikia berritze-lanetan ustea jartzten duena.

Guk ezagutu dugun Eliza Konstantinoren egiturako Eliza da. Goikoek ezarritako lege eta erakundeetan oinarrituako Eliza. Muñean usteldutako Eliza. Ordura arte erasoan bizi zen Eliza. Milango batzarrean erabaki zuten Konstantinok 313 garrenean kristauak babestea. Andik aurrera elizgizonak ez zuten gudaritzara joan beharrik izango. Ez ziran erri-azitegiaren epaituak izango. Arrizko elizak jaso eta jaso asiko zen Eliza Estatuaren laguntza. Ordukoak dituzu San Pedro, San Paulo, San Lorenzo, Santa Ines, Letran eta beste eliza asko. Geroztik Elizak Estadunaren babes eta laguntza berekin izango zituen gizaldietan zehar.

Baina zergatik? Konstantino kristau egin zelako? Ez noski. Politikako joko on bat egin zuelako baizik. Beldurtu egin zuten kristauen indarrak.

Sendoa zen eta zabala Erromako Inperioa. Jauntxoak eta aundizkiak goian. Ezeren askatasunik eta eskubiderik ez zuten langille eta morroi gizaraioak behean. Eta jakina, auen artean zuden kristauak. "Inuxente jendea, zarpajueloak, gizaraioak, esklaboak, emakumeak eta umeak bakarrik berenganatzen dituzte" zioten orduo aundizkiak kristauegatik. "Ez agintariei eta ez gurasoei esanik ez betetzeko" erakusten dute.

Legetik kanpora eta legearen aurka zebillen jendea zen kristau jendea. Orduko erakunde ere aundizkiak eta jauntxoek beren onerako ezarritako erakundeak bait zen. Eta orduan ere ezarritako erakundearen aurka egitea: "Erromako aberriaren aurka, Erromako agintariaren aurka eta Erromako erlijioaren aurka" jardutea zen. Eta erail ere iru pekatu oiengatik erailtzen zituzten kristauak. "Kristau" zela jakitea aski zen leoienez ortzetara edo gurutzera eramateko. Ezarria zegoen "ordena" kolokatzeko eta desegiteko arrisku aundia zen kristauak ugaltzea. Orregatik garbitu behar ziran lehenbalden denak.

Baina alferrik zen. Gero eta gehiago ugaltzen ari ziran kristauak. Inperio osoa, berriz, ankaz gora zijoan. Beste bide bat artu beharra zegoen. Ona konstantinoren jokoa: lagun egin. Geroztik goian egon dira kristauak. Agintean. Jauntxo eta aundizkiak.

Ona zuloan erori Kristoren Eliza. Ona argi, gatz eta legami indarrak kenduko dizkion zulo goxoan sartu. Goxoegian egiaz atera nahi izateko. Izan ere ainbeste lan egin dute goian egonez gero. Limosnak behartsuen alde, eskolak umeentzat, errekuak bahituentzat, eta batez ere askatasuna Kristoren Ebanjelioa otsegiteko. Ez da berriketako mauka. Ez dauka zeregina aundirik mailla ortan bururatu nahi duenak.

Beste bide bat artu beharra dauka. Behera jetxi. Behean gorde, sator-zuloan. Lur azpian ekin azpi-lanari eta azpi-janari. Baina ori kristau izateko. Askatasuneko erakundeetan bizi ala ez bizi.

Beraz, beharrezkoa dugu oinarriko taldeetara jotzea. Ez gaitzen il diran edo il behar duten erakundeak eusten jardun.

Ondorioak atera nahi ez

Gaurko (VIII-12) «Le Monde»k dakar Michel Rocard-en artikulua auzartea (M. Rocard Parti Socialiste Unifié-ren Sekretarioa da); eta heranegun ezagutu dugu Italiako Komunistak Alderdiak ezagutarazi duen bere gaitzespen osoa. Miterrand-en (Parti Socialiste), Edmon Maire-ren (CKDT Sindikatoa) eta Bergeron-en (Force Ouvrière) hitz gogorak irakurriak genituen lehenago. Eta Frantziako Komunistak Alderdiak berak, hitzerdiz bederen, kondenuatu du Pragako hausi-ilara luzea (Oraino ez bukatua!). Europako ezkerrek, hitz batez, inoiz baino ausarkiagotan esan dio «ez» Husak-ek eta Brexnev-ek nortzen duten politikabideari.

Gure arteko «ezkerta» (??) batzuk, berriz, «burges»tzat salatuzko bildurrez, baita isilpeko lagunarte eta gizaro hertsietan ere, isildu egiten dira; eta isiltzen diren neurrian Europako stalinistak gogorrenen artean sartzen dute beren burua. Itxura denez, ohore jakurri hori atxiki nahi dute Euskal Herriarentzat!

Eta ez da horrelakorik lehenengo aldiz gertatzen. 1968an, ongi oroitzen naizenez, Europako ezker OSOAK (komunista barne, Luxemburgoko K.A. kenduta) Moskuren jokabidea gaitzesten zuelarik, euskarazko artikuluetan irakurri izan ditugu guk Varsovia-ko Itun-ekoen defentsarik gordinenak. Zapi zikinak haizatzea kaltegarria litzake, eta ez dut izenik batere emango. Orduan

ere «burgesia»ren jokoan erori nahi ezak, gorriena hura eman zuten.

Hots, jokabide horiek hartuz, hain zuzen ere, egin ohi da burgesiaren jokia, eta sozialismoaren helburua lardaskatzen; ezen Pragako gertaerak eta politikabideak ZEHARO eta ARGÍ-ETA-GARBI gaitzesten eta arbuiatzen ez baditugu, geuk uxatzen ditugu jendeak sozialismoaren helburutik. Gaurko Europar arriskurik larriena sozialismoarentzat ez da Washingtonen erakarpen gozoa, baina Pragako eta stalinismoak hedatzen duten kiratsa.

Liburu sakratuetan mundua zuri/beltz biketaren arabera agertzen da, eta biketa ximple horrek oso erosotasun handiak ematen zituen egoerak jukatzeko. 1972ko mundua, zoritxarrez, ez dago zuri/beltz bikote errazaren arabera partituzerik. Bi muturretan kapitalismoa eta stalinismoa ditugu, Viet Nam eta Txekoslovakia; EZ SOZIALISMOA ETA BURGÉSIA. Ezker berriak, horretara, ezin bestean, BIEN ARTE-TIK bilatu behar du sozialismo berriaren bidea, kaso bakoitzean arriskua zein den ongi neurtuz.

Bilaketa zail honetan liburu sakratu batzuk eta mito batzuk alde batera utzi behar badira, utzi egin behar dira; eta fazismo gorriaren aldekoek «burges» eta «gauchista» hitzak sarritan erabiliko badituzte ere, aurrera jo behar da ezker berriaren aldera.

Gure helburua GIZATAR SOZIALISMOA da; alegia, kapitalisten lapurreta amaitu, burgesiaren sasi-legetasuna errotik erazi, eta ekonomia eta agintea, behetik gora antolatuak, herriaren eskuetan jartzea.

Mendebaldean agintea eta legea burgesiaren eskuetan daude. Egia. Baina Pragan ekonomia eta agintea ATZERRITAR IMPERIALISMOAREN eskuetan daude, eta atzerritar imperialismoaren zerbitzutan; ez inolaz ere txekotarren eta eslovakiarren eskuetan! Marxen irizpidea oraingoan onartuz, berezi egin behar dira Moskuren USTEZKO asmo ofiziala eta OBRAZKO ekintza objektibo egiazkoa; eta, jakina, bigarrena soilki seriotan hartuz.

Baina arazoa oraino ere zailago da. Zeren eta Pragako hausi-saila gertatzen ari zen asteotan jakin baita Lin Piao-rena. Hots, Lin Piao-aren gertakaria, oso kezka-iturri oparoa da.

Irakurleak badaki Lin Piao nor izan den: bizpahiru urtez Txinako bigarren gizona. Hots, zer gertatu zaio Lin Piao-ri? Gauza handirik ez dakigu. Hau bakarrik, egia esateko: Irailan hil zela. Nola? Zergatik? Nork hila? Ez dakigu deusik. Eta orduan hil zena ere, orain jakin dugu.

Hitz batez: bere burua «sozialista» aitortzen duen erresuma batetan (ez nolanhikoa; ez handieraz, 800 miloi biztanle; ez iraultza-nahiaz) bigarren pertsonajea hilda

ere, BEDERATZI HILABETEZ ez du INORK gertatuaz EZER ERE JAKIN. Eta edonork egin dezakean galdera hau da: bigarren pertsonajea, nola ez dakigularik, hil badaiteke, eta ondoren bederlatzi hilabeteetako isilaldi trinkoa gerta badaiteke, zer bahitura, zer segurantzia, zer garrantia dago «sozialista» (?) legetasun horretan? Bigarren agintaria arrastorik ere gabe itzal badaiteke, zer gerta dakieke Lu-Fu-Chi edo Chun-Mi-Lo herriska txikietako nekazari gizajoei? Gaur normahi dago Txinan arriskurik latzenean; normahi arrastorik batere utzi gabe zapal eta hil daitekeala gauza ageria da. Hots, hori onartzen duen politikabideak izen ezaguna du: fazismoa. Aginduak goitik datoz, eta galdera gehiegi egiterik ez dago.

Baina, hauxe da bigarren alderdia, Pekinen, Pragan bezala, «marxismo-leninismoa»ren izenean gertatzen dira zuzengabekeria horiek. Stalin orain dela 20 urte hil zen; baina stalinismoa ez da hil. Zergatik? Gertakari horiek PENTSA-RAZI egin behar lukete. ONDORIOAK ateratzen hasteko garaia dextente abiatua da. Eta Rocard-en hitzak jar daitezke hemen: «Cessons de parler d'excroissance monstrueuse. Ce qui est en cause, c'est l'ensemble des méthodes et des moyens que secrète le stalinisme, forme dévoyée du marxisme qui bouche toutes les perspectives socialistes au lieu de les ouvrir».

Sozialista garen askok maiz egin diogu galdera hori geure buruari. Zergatik gertatzen da hori? Zergatik agertzen dira stalinismoa eta marxismo-leninismoa elkarri zeharo lotuak?

Orain arte galdera hori beren buruei sekulan egin ez dieten horien txanda da.

Ondorioak ateratzen hasiko ahal dira!

LARRESORO

ZORIONAK

Olinpiada giroan bete-betean murgildurik gaude; kirolariak azken urtetako lan neketsuari amaiera emanaz, azken leiaketa garratzari ekin diote, sariren bat, medallaren bat, marka onen bat eskuratuko ote us-tean. Behin eta berrito asko idatzi da deporte gauzetaz, kirolarien egitekoetaz, deporteak eta pertsonagintzak dadukaten loturaz, eta abar.

Baina azken aldi honetan ikusi eta entzun ahal izan dugunez, kirola ere «politika madarikatuarekin» nahastu digute. Ez da hau gaurren sortu den leloa, aspaldikoa baino. Halaz ere Olinpiadetan, Rodesiaren jokabidea dela medio, esames, haserre, kezka, hitzaldi, bilera eta erronka franko sortu da Munich eta munduan zehar, eta, zoritxarrez, arinegi mintzatuz sarritan.

Guk, geure aldetik, ez dugu zorionak eman besterik egingo. Izan ere, badakizue jakin kanpoko berriak ezagutzea bertakoa baino errazagoa izaten baita da askotan—, Rodesiako agintedunen, indardunen jokabidea esango genduke, oso zaltzaille eta menperatzaille dela. Aldizkari honetan sarritan mintzatu izan gara gai honetaz, eta ez zaituztet lehengoak berresaten asperatuziko.

Hona hemen bada: gizalege oro apurtu duen gobernuaren laguntzaz gerturiko kirolariak Alemaniara doaz. Pertsona bezala bizitzeko egokierarik ez duen herriak ez ditu deportistak sortaraziko. Badu aurrerago-ko lanik. Horregatik, lehenago Hego-Afrikari buruz erabakizuna Rodesiarekin ere berdin erabaki dedilla eskatzen dute beltzek.

Kirolariak badute zapalkuntza honen kontzientziarik eta Munichen parte hartzerakoan Rodesia kanpoan uztea eskatu dute, elkartasunak damaioien indarrak ballaturik eskatu ere. Geroztik gertatua, denok ezagutzen dugu. Konponketa sinplea hasieran, Ingalaterraren babespean jokatzearena alegia, eta azkenik kanpoan gelditu da Rodesia.

Gauzek lehenean jarraituko dute, Rodesian ez da aurrerantzean ezer aldatuko. Baina beltzek injutizia eta bidegabekeria gogorazi digute. Pozgarria da kirolari hauek erakutsi diguten kezka, nahigabea, samintasuna, zapalkuntzaren kontzientzia. Horregatik, bihotzez, ZORIONAK.

Europar oraindik Grezia eta beste zenbait diktadurak irauten duen antzera, Afrikan ere ez dira Rodesia eta Hego-Afrikakoak bakarrik zapaltzaille. Hor daduzkagu, adibidez, Mozambiken FRELINoren eraginez portugalدارren aurkako burruka bizian. Tete lurraldean, dagoeneko askatu dutela esan genezake, baina burruka, Tanzania muga ingurutan zorrotz doa.

Burundin gertatuare ere lotsagarri deritza. Zenbaiten jauntzokeriek, feudalismoa gogo duten tutsi indardun eta dirudunek herri bat, hutustarren herria, zapaltzen eta hileraziz doaz. Hilketak ez dira oraintsu hasitakoak, aspaldikoak baizik. Baina azken hilabeteetan indarkeriari ez diote ezeren mugarik ipini, orain artean isuritako odolak ez du bere gose-egarririk ase.

Afrikan zehar eta Afrikaz kanpo ez dira horrelako gertaerak lehe-

nengoak izan, ezta azkenengoak izango ere. Baina goazen Rodesiaruntz. Ingeles gobernua «askatasuna» eskeini eta gero, 1965 urtean hain zuzen, bertako arazoak, problema larriak ez du konponketarik izan. Igaz Azaroan Home ingelesak eta Smithek lege berri baten araudia izenpetu zuten, baina mamiz eta muinez ez da ezer aldatu. Beltzek ez dute luzaroan bertako agintea eskuratzerik izango. Afrikar beltzak, 250.000 zuri menpean, hankapean bizi dira. Beltzen joralek beheko mailan segiko dute, eta irakaskintza erakunde zuri osabide eta goramenerako pentsatua izan da.

«Kirola kirola da» diotenei, ezere nahasketarik izan ez dadin erregutzen duten horiei, gauzak daudenean jarrai dezatela gogozkoa zaiela dirudi. Ez dute nahasketarik nahi, eta «politika» hitza zapal jaurtitzen dize. Hil zorian dagoenaren bizi nahiaren oihua ere politika izango da noski.

Aurtengo Olinpiadak martxoan daude. Medallak pilaka banatuko dira, txaloak, garaipenaren txaloak eta ezinaren negargura elkartuko, kirolari nagusien izenak historiak jasoko ditu ondorengoek gogoan har ditzaten.

Nik, nere ajendatxoan, beste historia bat jasoko dut, kirolariak, historian zehar, herriaren garrasari erantzun nahirik idatzi duten historia. Historia tristea, garratza, isila. Aurtun afrikar beltzek beren kapituluak idatzi dute. Gure artean ez ote da historigilerik izango?

Mikel Ugaldé

ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldetz	Aurrez galdetu
Saimetan (ale bakoitzaz)	7 pezeta

ZENBAT gaRA 72



DUELA URTEBETE

Duela urtebete hilaen bostean, sail hontan hasi ginen besterik ezean. Zenbait berri emanez maila apalean, zerbait egin gurarik horra gu lanean.

Egin gendun kontrata ARGIAK eta guk, hamabostean behin hiru folio gertu. Guk ordea astero egin sei inguru, proportzio honetan ez digute ordaindu.

Geroz hamabi hiletan ihardun dugu lehen, laugarren orri hontan zintzoki ta kemen, liburu berri eta amaika aipamen, hasi ginenez gero jarrai dugu hemen.

Idazle egin naute ia oharrezka. Inguruan bait ditut jakintza ta kezka, ta anitz adiskide atzean bultzaka, konforme ez dagoenak egin beza zaunka.

San Martinengan dugu artxibo aberas. Gramatikaz ordea Basauri maisuaz. Amaika irakurlek bidali gutunaz, honela tontoenak daki edozertaz.

Izan ditugu gaiak denetarikok, edozeinek errazki irakurtzekoak. «Zerukoak» askotan maiz «infernukoak», ez ultrek nahi dituzten linbo hainakoak.

Ez gaude ez batekin ez bestearekin, otsoak eta ardiak bereiztearekin. Azken fineko gauzak ez dituzgun egin, elkar aditzeari dezaiozun ekin.

Ez dezaiozun eska herri gaixoari eskatzen ez zalonik herri libreaki. Aldiz, ez ote dugu guk geuk zertaz ari, ta ez arrazoi eman gure etsaiari.

Orain dela urtebete hasi ginen eran, galde dezagun egun ZENBAT ote GARA? Oriotarraren kantak dioten tankeran, elkartzen ez bagara goaz aldatz beheran.

Urtebete joan zaigu solas aspertutan, inoiz alai ta pozik txorakerietan. Gai trinko ta astunak beste zenbaitetan. Gaizki esanak ahaztu ahal duzun denetan.

Errazen egin dugu erraz bait da hasi. Orain berriz jarraitzen behar dugu ikasi. Apalki berri emanez lasai irakatsi, denok izan dezagun zertaz irabazi.

Agur ba irakurle, agur terdi zuri. Urte bat dugu eta zorianak guri. Oinez ikasi dugu nahiz eta urduri. Gizon egin orduko egingo du euri.

● Urtebete joan zaigu, bai, urtebete! Urtebete sail honetan hasi ginenetik. Urtebete, berrogeita hamarren bat aste, aste haina ZENBAT GARA, eta guztira ia hirurehun inguru folio, liburu bat haina, noski.

Esan dugu esan beharrezko amaika, eta isildu beharrezko bat edo beste ere bai. Okerrak anitz, seguru asko, baina baita azierturen bat edo beste noizik behin ere. Irakurleak eruz erantzun digu. Ehundaka gutun jasoak ditugu. Ez da asterik izan irakurlearen baten gutunik eskura ahal izan ez duguna. Zenbaitek iritzia emate aldera, beste zenbaitek txalotu edo kritika egin nahirik. Inoiz berriak eta liburuak bidalitz ere bai. Baita zenbait lan moldatzean lagungarri ere.

Edozeinbat aipatu izan dugu urtearen barrena, beste asko isildu beharra izan dugu irakurlearen aginduz. Dena den, honako hauk aipa ditzakegu egun, inori damugarri iritziko ez zaiolakoan: Jabier Aranburu, Carlos Santamaria, Jon Etxaide, Anastasio Arrinda, Ibon Sarasola, Juan San Martin, Luis Villasante, Xabier Bastarrika, Martin Elexpuru, Mikel Arregi, Joseba Intxausti, M.^a Carmen Garmendia, Felipe Lizaso, Serafin Basauri, Joxe Azurmendi, Angel Irigaray, Etxeberria'tar P., Jose M.^a Etxaburu «Kamifiazpi», Jokin Apalategi, Luis Haranbu-Altuna, Imanol Laspier, Iñaki Zubizarreta, Severiana Goenaga, Arzuaga'tar E., Xabier Agirre, J. J. Irigaray, Dionisio Amundarain, Hendrike Knörr, Jokin Arostegi, Yon Mikel Uribe, Anai Berriotxo, Alfred Berglund, «Inalurreta», «Zeleta», Emilio Olazabal, Antxon Narbaiza, Louis Bassance etab.

Oker ez banago, bizpahiruri ezik, gainontzeko guztiei erantzun diet. Dena den, hemen aipatu diren eta ez diren guztiei ene eskerrik sutsuena.

BERRIAK

● Andramaritan izan dugu jairik non-nahi. Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko itsas bazter inguru guztian batez ere, ez bait da alferrik Andra Mari eguna mariñelen eguna, batik bat.

Hain zuzen, Andra Mari arratsalde, jaialdi bat eratu zen Deban. Bertan ziren Bermeoko Txistulariak, «Ondar Beltz» Debako Dantza Taldea, Lapurdiko «Legeherak» kanta taldea, Etxamendi eta Larralde bikotea, Manex Pagola eta Antxon Aranburu kantariak, eta Lizaso eta Muñoa bertsolariak.

● Kosta aldean ezezik, barru aldean ere izan zen jairik anitz, Mallabia, Plazentzia, Azkoitia, Mendaro, Isasondo, Elgeta eta beste zenbait herritan.

Abuztuaren 19an., Benito Lertxundi, Lurdex Iriondo eta Xabier Lete kantari guztiz ezagunak Mallabian eratu zen jaialdi batetan parte hartu zuten. Bai eta Galdakanoko «Andra Mari» Dantza Taldeak ere. Aurkezlarri, Jon Enbeita muxikarra.

● Isasondon, berriz, beste zenbait jaialdiren artean, *Un, dos, tres, responde otra vez* izeneko konkurso bat eratu zen bertako umeentzat bereiziki moldatua, eta TVE delakoak eskaini ohi duen programa lotsagarriaren gisa edo.

Programa honen lehen alderdia, galde-erantzunei dagokiena, alegia, interesgarri gerta daiteke, edota, txarrenean ere, kaltegarri ez behintzat. Dena den, jakin ote dezagun zein hizkuntzatan egin zuten isasondotarrek?

● Nafarroan ere ospatu zen jaialdi bat. Gutierrez bat, guk dakigunez, behintzat. Etxarri Aranazen eratu ere, eta ez nolana gainera, euskal giro hunkigarriaren pean baizik.

Goizean goiz txistulariek ekin zioten jaieri, ohi denez. Ondoren, kalejira, eta Lizarraga, Alsasua, Urdiain eta Etxarri bertako dantza taldeen saioak.

Iiuntzean jaialdia. Lizarragako Jon Lasa, Cruz Maria Martinez altsasuara, Iruñeko Fermin Valencia, Migel Etxarri lekunbertarria, eta Etxarri Aranaz bertako Kanta Taldea aritu ziren Lizarragako Parroko jauna aurkezlarri zelarik.

Honako jaialdi hau Etxarri Aranazko «Euskaltzaleak» eratu izan zen, «Príncipe de Viana» antolamenduaren arduraren pean, eta Etxarri Aranazko Euskara Ikasaldien alde.

● Ordiziako Juan Antonio Galparsorok, Ordizian bertan eratzeko den JAKINTZA ASTEA delakoaren programa bidali digu. Programa joria benetan, hona hemen, zehatz mehatz, ahalik eta murrituen, harako hura:

Irailaren 2an., arratsaldeko 7etan., Txistularien Ibilaldia. Ondoren, EUSKAL LIBURU ETA DISKAREN azoka irekiko da. Gaueko 10etan., berriz, Ondarruako Kresala Taldeak Zubikarayan *Mariñela* deritzan euskal zartzueta eskainiko.

Irailaren 3an., eguerdian, «Rondalla Laguntasuna» delakoaren saioa Enparantza Nagusian. Arratsaldeko 5etan., «Jai Gurdien Igarro Aldia». Ondoren, erromeria, kalejira eta gau-jaiak.

Hilaren 4 eta 5ean., bi hitzaldi programatuak dira Jakintza, S.A. *minorriak eta Europa estadutako Le-elkartean. Astelehenean, Europako gerla. Biharamunean, Joseba Intxausti Hizkuntzabatasuna eta Giza-nortasuna* delakoaz mintzatuko da. Hilaren 6an., lehen orduan, Gipuzkoako Abelgorrien Lehiaketa, eta Ganadu, Barazki, Gazta eta Igalien Bilketa eta Agerketa. Eguerdiko 12etan., Gipuzkoako Bertsolari Gazteen Lehiaketaren lehen saioa. Arratsaldean berriz, bigarren eta azken saioa. Iluntzean, trikitixa, eta gaueko 10etan., Etxezarreta Antzokian, *Pelotari eta Ama Lur* zine saioa.

Hilaren 7an. «Umeen Eguna». Egun honetan izanen dira, Literatur Lehiaketa, Muralen Margoketa, Buztinez egindako Itxuraketa eta Altxorren Bilaketa. Bai eta Euskal GIGñola eta Debako Arte Eskolaren Espresioa ere. Gaueko 10etan., azkenik, jaialdi bat Zigor Dantza Lekuan, Ordiziako ikastolaren alde.

Hilaren 9an. eta gaueko 10etan. Bertsolarien Gau Jaiak. Bertan izanen dira Xalbador, Lazkano, Iraola, Igartzabal, Lazkao-Txiki, Agirre, Goiburu eta Etxaluz bertsolariak.

Hilaren 10ean., azken egunez, Txistulari eta Dantza Talderen Ibilaldia eta azken saioak. Aste guztian Debako Arte Eskolaren erakusketa izanen da Udaetxean, bai eta Euskal Liburu eta Diskaren Azoka ere, arkupetan.

● Orain hurrengo jakinarazi genduz, irailaren 4etik aurrera eratzeko da Baionan EUSAL ASTEA. Hona hemen harako programa, hitzaldiri dagokiena batik bat:

Irailaren 4ean. «Ipar eta hego euskal herrian ekonomia har-emanak», Ramuntxo Kanblong. «Herri baten hirirtzea: Baigorri», G. Biddart. «Lantegi berri eta lur berri», Donibane Lohitzuneko herri buruzagien gain.

Irailaren 5ean. «Euskal Musikari buruz», X. Bello Portu. «Haurrak edergintzarat erakartzeko», Debako Arte Eskola. «Euskal Kanta», G. Aresti.

Irailaren 6an. «Gaurko literaturari begirada kritiko bat», I. Sarasola. «Atzoko kazetariari bat: J. Hi-

riart-Urruty», P. Lafitte. «Gaurko kazetariari bat: R. Arregi», J. Intxausti. «Poema irakurketa», J. A. Arza eta X. Lete.

Irailaren 7an. Paris, Bordele, Pabe, Bilbao, Donostia eta beste zenbait hiritako euskal ikasleen biltzarra. «Euskal Unibertsitateaz», K. Santamaria eta J. Haritxelhar.

Programa horri interesgarria deritzagu, nahiko erdi maila batetan, nahiz eta, agian, gaien tituluengatik zail gerta hitzaldien sakontasuna neur ahal izatea. Eta hitzaldien sakontasun eta zailtasunaz mintzatzaren gara, zeren, HERRIA aldizkarian irakurriak garen, bada zenbait iazko Euskal Astearen gehiegikeria salatu zuzena:

Hautatu dituzten solasgaiak aintzetze goregiak baitira gure herritarrentzat, Zergatik ez ba munta holako Astea, euskal kulturaren alorean lanean ari diren talde guztiekin batean? Ala aste horrek betiko berrogei ta hamar fagoratuak elgarretaratu behar ditu!

Guk geuk uste, hitzaldiek beti izan behar dute halako goi mailatasun apur bat, zerbaiterako balioko badute, behintzat. Dena den, hitzaldien tituluez gainera, hizlariak berek dute hitza.

● «Príncipe de Viana» antolamenduko «Lengua Vasca» deritzan batzordeko hiru arduradunek dimititu egin dute amaitu berri den abuztuan. Jorge Cortes Izal, Jose Maria Satrustegi eta Jose Manuel Lasarte jaunek gutun batez adiarazi diote Nafarroako Diputazioari hartu duten erabakiaz.

Hauzia lehendik zetorren. Esan dugunez, aipaturiko hiru jaun hoik «Lengua Vasca» deritzan batzordekoak ziren oraintsu arte, eta Nafarroan barneko euskara ikasketa eta heziketa zegoien.

Abuztuaren 15ean., aldiz, euskarazko heziketa eta ikasketa Diputazio Heziketa Batzorde Orokorri atxikia izanen dela erabaki zuen Nafarroako Diputazioak; aurrerantzean, euskal eta erdal eskolek batzorde berberaren agintza eta zuzendaritzaren pean ihardunen dutela, alegia.

Orain arteko hiru jaun ardura hoik Diputazioak berak izendatuak ziren zeregintzarako, baina Diputazioak ez die jakinarazi erabaki honetaz zuzenki, egunkaritan agertu den nota batez baizik. Horra ba, zergatik dimititu egin duten.

Guk dakigunez, Diputazioak ez du orain arte hauz honetaz ez arrazoirik ez eta azalpiderik eman.

● Datorren igandean, irailaren 10ean., Nafarroako Auritzen (Burgete), bertako seme zen Pablo Fermín Irigaray «Larreko» euskal idazleari eskainitako omenaldia eratzeko da. Honako omenaldi hau, Auritz bertako Udala eta Euskaltzaindiaren arduraren pean eratu izanen da.

Goizeko 11etan. Auritz-ko Elizan Herri-meza. Ondoren, 12etan. «Mutikoak» izeneko taldearen dantza saioa, eta «Larreko» sortu zen etxe aurrekaldean orotarria azalduko da.

Hamabi eta erdietan, Udaletxean, Euskaltzaindiaren Biltzarra ospatuko da. Alkate jauna eta Euskaltzainburuaren agurraren ondoren, hiru hitzaldi labur entzun ahal izanen dugu, alegia: Labayen jauna «Larreko»ren garaiko giroaz mintzatuko zaigu. Lafittek, «Larreko» euskal idazle gaiaz hitzegin, eta Erkiagak, berriz, «Larreko» gizonaz. Honako biltzar hau orotarrikoa izanen da.

Pablo Fermín Irigaray Goizueta «Larreko» Auritzen jaio zen 1869 urtean, eta Iruñen hil 1949an. irai-

laren 3an. Madrilgo Unibertsitatean eginik zituen mediku ikasketak. Beran eta Iruritan egon zen mediku bezala, eta azkenez, Iruñeko Barañain Hospitallean, zuzendari.

Idazle trebe eta guztiz herrikoia. Nafar-lapurdiko euskara erabili ohi zuen, herriak zerabilenaren ahalik eta hurbilen. Ez genduen batere neologismo zale. Zenbait hitz erabiltzean, Axular, Mendiburu, Duvoisin eta autore zaharrei irakurritako hitzez baliatu ohi zen. Jostegantzi gehiago eman ohi zion. kera jatorriari hitz garbiei baino Pierre Lafittek HERRIA asterokoan esana duenez, pare gabeko prosa omen zuen.

«Napararra», «Gure Herria» eta «Euskal Esnalea» aldizkarietan argitara eman zuen bere zenbait artikulu. Haren seme Angel Irigaray Euskaltzainak, bilduak ditu bere aitaren bederatzidiazlan XX-garren Mendeko Nafarroako Euskal Idazlariak (Iruñe, 1958) deritzan liburuan.

LIBURUAK

● Azterketa sailean bada Euskal Herrian gizon isilik anitz. Horitako bat dugu Justo Garate, gorputzez Argentinan eta bihotzez Euskal Herrian duguna.

Justo Garatek oraintsu argitara eman du XVIII mendeari buruzko liburu berri bat. Garate jaunak lehenik ere aski frogatua digu honako mende honetaz duen maisutasuna, Humboldt, Astarloa eta Moglez egindako azterketak medio direla, eta azken liburu honetan ere bere jakintza nabari da.

LOS COLEGIOS DE LAS VIZCAINAS Y VERGARA EL SIGLO XVIII. Justo Garate. Mendoza, 1972.

● Beste liburu bat datorkigu itsas bazter hartatik, Ameriketatik, alegia.

Jose Ramon Zubillagak beste liburu bat azaldu digu. Duela zenbait urte eskaini zigun lehena («Lardasketa», Auspoa, 40-41), eta liburu hartan bere bizitzaren berri ematen zigun bezalaxe, honako bigarren honetan, berak bere inguruan ikusi eta ezagutu dituen euskaldunen berri eman gurarik dator kontakontari.

EUSKALDUNAK ARGENTINA'N. Zubillaga Erramun Joxe'k. Editorial Vasca Ekin. Buenos Aires, 1972.

● «Tintin-en Gertaera Harrigarriak» deritzan sortaren barrena, Etor Editorialak argitara eman ditu bi ale berri, *Tonosol Arazoa eta Ottokar-en Errege-Makilla*. Tintin Ameriketan delako lehen aleari buruz esandako zenbait berresan genezakeen azken bi hautaz ere. Zenbait, diogu, zeren esandako guztiak ez bide ziren zuzeneziak, halaber gu zuzendu gaituzten ustetan, bederen.

Dena den, sorta guztiz irakurgarria dela esan dezakegu berriz; bizitasun duena, umeek eta ume aspaldi izandako zenbaitek gustora asko irentsi egiten dutena.

Darabilen euskara gipuzkera da, nonbait. Eta beldur gara ez ote dauden azken bi hauk batasunetik lehen alea baino urrutiago. Onewan ere, ez diegu behintzat aurrerapenik sumatzen. Eta hain erraza da eze batasun moldeetan idaztea... Esate baterako, zenbat kostatzen ote da «iriki» edo «ideki» idatzi beharrean «ireki» idaztea? Eta hauze da funtsean batasuna, ez besterik!

AMATIÑO

Kontu emen!

Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!
Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri
Elte azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa
SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»
LANTEGIA-INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)

MUNDUKO BERRI

TXIKANO-EN BURUZAGIA PRESONDEGAN

Ameriketako Erresuma Elkartuetako (USAko) Mendebaldean (Arizona, Idaho, Nevada, California, Nuevo Mexico, Texas) "CHICANO" delakoak bizi dira. Miloi batzuk dira, oso sakabanatuak, eta hizkuntzaz gaztelania-dunak dira: "chicano" = mexicano. Orain dela ehun urte gertatutako Mexicoko Guduz geroztik, eta hizkuntza-desberdintasuna dela bide, bigarren mailako amerikatarrek dira txikanoak; alegia, bigarren mailako hiritar USAko erresuma. USAko legeak ez batu txikanoengan aitortzen etni-berezitasunik. Talde gisa txikanoak ez da-
50.

Txikanoen buruzagirik ezagunena, Ricardo Chavez Ortiz, 36 urte, 8 haurren aita, BETIRAKO GARTZELAZ den Apirilaren 13an, Nuevo Mexicoko hegazkin bat bidez izan da kondenatua. Joan-baztertzeko saiatu zen; eta, prentsa bere inguruan ikusi zuelarik, gauza bat bakarrik esatu zuen: telebistari deklarazio batzuk egin ahal izatea. Hala egin zuen; eta telebista-saio hartan, txikanoen zoritzarrak eta zapal-
ketak azaldu zituen hitz-hungarri. Bukatzean bere burua altxatu zuen preso, amerikar agintearen menpean jarri. Ez zen hortaz gertakari hartan izan kalteturik ez zauriturik ez hilik.

Trbiunalak BETIRAKO GARTZELAZ zigortu du Chavez, ordea, joan den Uztailan. Juezen artean ez zegoen txikanoak batere.

MALASIA ETA INDONESIA HIZKUNTZAZKO BATASUNERUNTZ

Indonesian eta Malasian jatorrizko hizkuntza, bakar bat dago: "malaiara", malayo, malais. Eskualde batek, ordea, ingeles kolonizazioa jasan zuen (Malasia, Borneo, Sarawak, Singapur); eta besteak, berriz, nederlandar kolonizazioa (Java, Sumatra, Zelebe). Hauze izan da, besteak beste, Finlandia-Kareliaren kasoa, Mazedoniarena, Kurdistanena, berebertarrena, serbo-kroaziarena, eta beste anitz herriren kasoa. Desberdintasunak erantsi ditu kolonizazioak. Hizkuntzen mailan, eta zeinek bere hitzak kutsatuaz gain, ingeles kolonizazioak bere idazkeraren arabera idatzi du malaiara; eta holandes kolonizazioak, era berean, nederlandararen arabera egin du: "n" soinua, gonbarazio batez, Flandetan eta Holandan bezala, "oe" idatzi du. Piskanaka piskanaka, horrela, Indonesiako malaiara eta Malaiako malaiara elkargandik berezi dira; eta gaur ia bi mintzaira liferente ziruditen.

Arriskua ikusirik, Malaiako eta Indonesiako gobernuak elkar hartu, eta hizkuntzen BATASUNA egitea erabaki dute; eta elkarketa horretarako BOST URTE hartu dituzte: 1972-1977. Malaiara "batua" bi gobernuen sartuko dute batera antolamendu ofizialetan, eskoletan, eta abar. Eta gaurko "bahasa malaysi" eta "bahasa indonesi" delakoak, BAT izango dira laster bi erresumetan; politikazko batasuna izan baino lehenago, beraz.

Aurrezki Kutxetakoek irakur dezaten...

Luis Angel Rojo Duque, Madrilgo Unibersitate onplutenseko irakaslea da. Gaurregun, Espainian izen handiko ekonomilaria. Ez naiz katedratiko honen biografia ematen hasiko, ez bere liburu eta idazlanen zerrenda argitaratzen ere. Nahi dut, haatik, jakitun gazte honen aipua zerbait izenkiro hemen ezarri, bakar bakarrik, ordea, arrazoi hauengatik.

Ikusiko denez, guziz "neurea" duan gaia eta hauzia erabili duela Vigo, denbora asko ez dela, emana duen hitzaldian.

Nahiz Galiziako ekonomiaz eman bere hitzaldia, berak, Rojok, esan duela "estas ideas se podrian aplicar a todas las provincias españolas, ya sean las atrasadas o las más dinámicas".

Hirugarren arrazoia, ideia horien berri emateko, duten balioaz gainera, zera da: gure artean, probintzialismoa nagusi den leku orotan bezala, kanpoko izenei eta esaneri jaramon gehiago ematen zaiela etxekoei baino, nahiz behin eta berriro, hauzi eta arazo berberak ideia txit analogoak hemen bertatik eman.

Hitzaldi hori, esan dudanez, Vigo eman zuen Rojo jaunak, hiri honetako Aurrezki Kutxak eraturiko kurso batetan. Eta, hariari behingoz helduz, gai hau erabili zuen: "La utilización del ahorro regional".

Hitzaldiaren azken parteak, izenburutzat "Aplicaciones al caso de Galicia", du eta parte honen mui-
na ahalik zintzoenik ematen saiatuko naiz.

Aurrezki Kutxek berenganatzen duten dirua, Banketxeek ugaltzen dutena baino azkarrago etorri da azken hamabi urteotan.

Beraz, Aurrezki kutzen indar edo kemen ekonomikoa benetan eskerga da Espainiako diru-sistimaren barnean. Gertatzen dena da, dio Rojo jaunak, que "las Cajas de Ahorros de España se encuentran tremendamente mediadas, porque realmente no han conseguido superar, desde el punto de vista del legislador, su origen benéfico-social, y, por consiguiente, son instituciones que recogen una masa enorme de recursos, pero que, sin embargo, son reguladas por las autoridades de un modo tan estricto que se consigue eliminar una utilización altamente dinámica de esos recursos. Quiero decir que las Cajas tienen tales exigencias de colocación o de inmovilización de su activo, especialmente en forma de absorción de deuda pública, que realmente sus posibilidades de actuación en otros sectores son reducidas".

Halaz guziz ere, hau da: nahiz Kutxen indarrak hain bridatuak gertatu, ba omen dute Aurrezki utxek eskuartekorik aski beren egiteko nagusienetako bak bete dezaten.

Egiteko hau, zera omen da: A-K-k erregio-ekonomiaren hazkunde bultzatzaile, eragile eta, hein batetan, gidatzaile izan behar dutela, alegia.

A-K-k, orain, prestamenak egiteki landara deus guti egiten omen dute hazkundera dagokionez. Diru

erakunde hauen egitekoa, ordea, hazkunderaren finantzaile bilakatzeko izan behar omen du, hain zuzen.

Zer esan nahi du honek? A-K-n jokabide "ortodoxoa", tajuzko inbersioei eta bahitura eskaintzen dutenei, dirua prestatzea izan ori da. Kutxek, ordea, jokabide arras "heterodoxoagoa" jokatuko behar dutela, dio Madrilgo irakasleak. Ekitza aurrerariagoa nahiz arrisku handiagokoa izan. Errejo-ekonomiaren bultzatzaile, eragile, gidatzaile izan behar dute gure Aurrezki Kutxa dirudunak.

Horretarako, Kutxak, mikroekonomiari bakarrik behatuz, ez dute ibili behar. Hain indartsu diren irakunde "herrikoioi", ikuspegi zabala eduki behar dute. Esan nahi du, errejo eta probintziarentzat zein hazkundera bide, zein industria-bide den egokiena argi eta garbi, urrutira behatuz, ongi pentsatua eduki behar dute.

Estrategia honek gidatu behar lituzke, dirua banatzerakoan, inbersioak egiterakoan, baloreak erostekoan. Gauzak garbiro esanik, hazkundera bide aukeratu eta zabal batean, inbersiorik omenak ongi aztertuta, eta analizatu eta hoiel dirua prestatu. Gakina, lan hau tajuz eramateko Kutxek lankide ongi ornitutak berengan hartu behar dituzte. Injinadoreak, ekonomilariak, arkitektoak eta abar Hauek "staff" deritzen lanmota eramango lukete, eta hauek zuzen eta sakon berri emango, zein inbersio komeni den, zein ez den kmoeni hazkunderaren estrategia barnean.

Honek ez du esannahi, orain da-

ramaten ekintza utzi egin behar dutenik. Ez. Hain "heterodoxoa" iduri lukeen bide honek, A-K-en jokabidea osatu eta gaurkotu baino ez bait du egiten.

Garbi ezarri behar da, beste puntu nagusi bat ere. Estrategia baten barnean inbersioak zuzentzek eta aukeratzek, ez du inolaz ere esannahi errentabilitaterik ez duten inbersioak, agian, finantzatu egin beharko lirakeela. Ez. Hain zuzen, bide honek errentabilitatea hartzen du oinarritzat. Ez, ordea, errenta edo irabazi finantzerua bakarrik, baizik baita "errentabilitate ekonomikoa" ere. Hau da, bi lantegi mota ezberdinekoek irabazi berdina erakar lezake "enpresaren barnera" soilik begiratu. Baina, barneko irabaziaz gain, lantegi mota batek ekonomia osoari beste lantegi mota batek baino "errentabilitate ekonomikoa" ioriagoa erakar lezake. Bi alde hauei begiratzera behartuta daude "herriko" deritzen diruerakunde diren Aurrezki Kutxak.

Homaño, Rojo jaunaren, ideiak. Ez dira berriak, ez dira hemen lehenbiziko aldiz agertzen direnak. Baina bai garrantzizkoak behin eta berriro birreresateko.

Dei hau, beraz, gure Aurrezki Kutxetara doa. Heldu da ordua estrategia hori aztertuta, eraiki eta, moduzko abiaduran, martxan ipintzeko.

Zertan ote dago, gaurregun, gure Kutxen pentsaera, nahia eta jokabidea, nahi-ta-erko dugun estrategia honi buruz?

GURUTZ ANSOLA

KORTZEGAKO BERRI

Kortzega, "Corse", Frantziako departamendua da 1768az gerotik. Baina Kortzegak ("Corsica"n hobe) italiaraz mintzo da herria. "Corseraz" mintzo omen da, ez italiaraz... Legezko hizkuntza bakarra frantsesa da. Bi mende ez dira aski izan kortzegatarrek frantsesetzeko; eta Mussoliniren eskabideak aski izan dira kortzegatarren italizale sendimendua "fazismo"tzat salatze-
ko.

Kortzegako hizkerak, horrela, ia miloi erdi bat lagunek hitzegina izan arren, ez du EZERTARAKO EKUBIDERIK: eskola, administrazioa, armada, liturgia, DENA, FRANTSES HUTSEZ egiten da. Arrazoi ofiziala? "Kortzegako hizkera" "allogène" dela, "arrotza" alegia; eta bestetik, dialekto asko izanik, ez luketela kortzegatarrek elkar ulertuko...

Italiara (eta Kortzegako italiara toskanera da, alegia, Italiako hizkera berbera) oso mintzaira landua da. Ez da euskara bezain ahula. Baina Pascal Marchetti irakasleak berriki azaltzen zenez, "alors que la précédente génération était bilingue, la nouvelle risque d'être condamnée à un triste monolinguisme".

Italiak ez du halere inoiz Kortzegako arazoa aipatzen. Eta, ordainez, Parisko gobernuak zeharo "ahaztuak" ditu Aostako frantsesak (Aosta gaur, jakina denez, Italia da). Aotsatarrek, esate baterako, telebistako errepitidore bat eskatu zutenean, Parisko gobernuak berak ukatu zien!

"Nik ez diat Kortzegako arazoa aipatzen, hik ez duk Aostakoa gogorazten"... Erresumak beren horretan jainko.

L.

Egipton, Rusia oraingoz galtzen

Ez da ez lehenengo aldiz horrelako gauza gertatzen zaiola. Munduko bigarren guduaz gerotik nazio arteko politikan izan du Rusiak uts egite ederrik. Yugoslabia batetik, Txinarekin gertatu zaiena bestetik, Kennedy garaian Cubako gettaerak bestetik uts egite beldurgarriak izan dira. Oraingoz, itxuraz ez du beste horien garrantzirik, gauzak pakez egin bai dira. Rusiak Egipton ezarritik zituen tekniko eta jakintzu militar jendeak aldegin beharra izan dute Sadaten erabakiz. Rusiaren eragiña urritu edo ahultzten ari dela adierazten du erabaki horrek.

1967 urteaz gero Egiptoko gudarostea berri eta osa dedin bi mila milioi dolar baino gehiago ezarri omen ditu Rusiak Egipton. Egia esan, bada zerbait. Laguntza hori gabe zer gertatuko ote zitzaion Egiptoko gudarosteari?

Gaurregun, den laudenaren erdia baino ahulago izango zen. Gerra egiteko ametsik izateko modurik ere ez zuen izango. Baina horra, egiptoar militarrek berek aginduta bota izan behar ditu Sadatek rusioak Egiptotik. Militarrek behariturik artu du erabaki hori.

Egiptoar militarrek ez dira rusozale. Azken aldi honetan kritika gogorak egin zituzten. Sadatek ez zuen horrelako erabakirik artzerik nahi. Erabaki hori artu baino lehen aint zuzen, militarren buru zena bere kargutik bota zuten Rusiaren etsai porrokatua zelako. Gerora, Rusiara egin zuen ikustaldiaz gero, amor eman behar izan du. Izan ere, eztabaida lehendik dator. Rusiako eta Egiptoko buruzagiek ez dute Orienteko arazoaz ikuspegi berdiña.

Egiptoko buruzagiek Israelekin zuten gudu, nolani ere, bukatu nahi zuten. Ahalik eta azkarren galduak dituen lurra bereganatu nahi ditu. Egiptoko ekonomia zuzendu eta tajutu dedin, ezinbestekoa da hori egitea.

Rusioek aspaldidanik amesten zutena egia bihurtzen ari zela ikus-

ten zuten, ots, Orienten beren itzala zabaltzen edo anditzen. Gudua medio zela, Rusiak gudako tresnen bidez modua izan zuen Egipton sustraitzeko. Itsasorako nahiz alde-rako baseak han bertan egin ahal izan zituen. Egoera honi berez iraun eraztea komeni zitzaion Rusiari. Egoera honi iraun eraziz gero bere itzala sendotuko zen. Rusiak ez zuen gudarik eta gutxiagorik ere nahi. Israel eta arabere artean guda berriro asiko balitz, berriro ere arabek jipoi ederra artuko lukete, rusoen ustez. Guda horrek, bestalde, munduko guda bihurtzeko arriskua dakar. Arrisku hori berriz gogorregia da. Rusiak ez du honelakorik nahi. Hori garbi ikusi da bere azken urte hautako politikan. Are eta nabarmenago gelditu da gudarik ez duela nahi Syriako alderdi komunistarentzat Rusian prestatua izan den isilkako txostenean.

Horregatik, Egiptoko buruzagiek gerra erasorako eskatzen zituzten gerra tresnarik Rusioek ez zieten eman nahi. Beren burua zaintzeko egokiak zirenak baina erasorako balio ez zutenak ematen zizkieten rusioek egiptotarrei. Egiptotarrek ez omen ziren, bestalde, tresna horiek behar bezala erabiltzeko gauza, zioten rusioek.

Egiptotarrek postura hori ezin zezaketen inolaz ere onar. Edozertarako ere, arma horiek gabe, ahul azaltzen ziren Israelarren aurrean. Mahai baten inguruan esertzeko ere indarrak ez zuten. Zer preso, izan ere, egin zezaketen arma hori gabe? Nola eragin Israeli ahul azaldurik? Harek berean jarraitzeko biderik egokiena, horixe zen. Ez gerra eta ez pake den egoera honetatik, beraz irten beharra zegoen. Rusoen militar laguntza kaltegarako besterik ezertarako ez zuen.

Ezinbestean, pake bidea artu behar izan du Sadate jaunak. Pake bide horretarako Ipar Amerikaren laguntza beharrezkoa du. Ipar Amerikak ezin zezakeen lagundu, ordea,

rusioak Egipton aint indartsu ikusirik. Orain rusioek aldegin dutenean, lagunduko al dute iparamerikarrek? Ba al dute hauek israeldarrei posturaz alda erazteko aintan indar? Okupatuak dituen lurraldeak nolanihi utzeko ez daude ez eta gutxiagorik ere prest. Egiptoren jorkoa ez da erreza. Nerekiko oso bakarrik arkitzen da. Ez Rusia eta ez Ipar Amerikarekin dago. Bion artean jokatu nahi du. Hori oso arriskutsua da. Oso gutxitan atera da ondo.

Gaurkoz Rusia bakarrik atera da galtzen. Egiptoko egoera oso egokia zen bere indarra zabaltzeko, baina ez du asmatu. Sadate antikomunista porrokatua da eta egiptotarrek oso abertzaleak, bestalde. Beste lurraldetan erabilili ohi duen estrategia ezin zitekeen balia. Burgessia abertzale eta antiperfalistak batetan ezin zitekeen oinarritu. Jokabide hori alferrikakoa zela azkar ikusi zuen. Rusioak, beste lurraldetan oinarriak biltzen asi ziren.

Siria, Irak eta azken aldi honetan Yemen ditu bere lagun. Jokoa karta batez bakarrik baliatzea ez da egokia eta hori Rusioek ondo dakite.

Dena dela, rusioek postura gogorrez ez erantzutea eta patxada itxura batez jokatzeko ez da arritzekoa. Ohiturik gauzate. Ipar Vietnamiko puertoak Ipar Amerikak blokeatu zituanen ere ez zuen gogorrez erantzun. Hemen berdin jokatu du. Bi arrazoi daude gainera Rusiaren jokabidea aplikatzeko. Batetik, ez du bere erriko irtzi publikoa gehiegi aztoratu nahi. Bestaldetik, eta hau da arrazoi sakonena, Ipar Amerikak Egiptori soluzio egokirik emango dionik ez du uste Rusiak. Denbora, beraz, bere alde dagoela uste du Rusiak.

Dena den, bai Ipar Amerika eta bai Rusiak gauzak ondo neuruta jokatzen dute. Ez dute istillurik nahi. Binbitartean estatu txikiak, bereak eta bi pasatu behar.

J. ELUSTONDO

Elizaren berri

ELIZAREN BILA

Jean-Maury, Reimsko artzapezpi-
kua, hil berri den Konstantinopla-
ko Atenagoraz mintzo delarik,
Elizaren zentzuaz jardun da.

"Atenagorazek —dio— ezin uler
zitzakean katolikoan eztabaidak
nola izentatu Aita Saindua... Bere
iritziak bestelakoak zirelarik ere,
bere burua Jesukristoren ikasle jo-
tzen zuen oro, kristau osotzat har-
tzen zuen, Guztien gain batasuna-
ren aldeko bazen ere, ez zuen har-
tzen batasuna baterakoi. Pluralis-
ta bezala agertu izan dute. Diru-
denez, honela irizten zuen: bat
eginik egonda ere, kristau eliza
guztiek beren itxura eta beren ja-
rtotasuna gordetzen ahal zutela...
Ez ahal da hori, hair zuzen, ba-
tasunaz izan ditekien ikusmodu ba-
karra, ez bakarrik kristauen ar-
tean, baizik katolikoan artean ere?
Guztia honetan dagoke: Jesukris-
toren Eliza osoaren altzoan bata-
sunaren arau eta egiazko ezaugar-
rietaz batera etortzean".

Ikusten denez, hiru puntu inter-
resgarri ukitzen ditu lerro hori-
etan:

a) AITA SAINDUAREN IZEN-
DATZE MODUA: Jakina denez,
orain arte (Erdi Harotik hona),
izendatze hori kardenalen arteko
arazoa izan da. Gaur bestelako
ikusmoduak ageri dira. Zenbait teo-
logok, mundu guztiko gotzaien or-
dezkariek egin dezaten nahi luke.



Nola izentatu Aita Saindua...

Baina, beste askok ez du onartzen
ikusmodu hori. Protestanteak be-
roiek ere horren aurka daude: Aita
Sainduaren agintea handitu egingen
litzake, ba, horrela. Ortodoxoek,
gotzaia eta Aita Saindua bera ere,
nor bere diozesian hautatua izan
dadiela diote.

Aita Saindua aukeratze moduan,
lehengoan jarraitu ala lege berria
sortu arazoan, ez da gauza erraza
Aita Sainduaren egitekoa. Histo-
riazko jokabide aldetik eta teologia
aldetik arrazoi nahastuak daude.

b) KATOLIKO EZ DIREN ELI-
ZAK: Atenagorazentzat, kristau
ero, kristau oso da. Katolikoak ez
dira iritzi horretakoak. Katoliko ez
diren zerbait falta zaiela uste bait
dute. II Batikano aurretik, esate
baterako, katoliko egiten ziren pro-
testanteak berriro bataiatu egiten
ziren, bada ezpada. Puntu honetan,
eboluzio bat izan da; behar bada,
horrek beste batzuk ere erakarriko
ditu; baina, erromatar Elizak bere
burua jotzen du egiazko Eliza ba-
kartzat. Halaz guztiz, VI Paulok,
Eliza ortodoxoaz mintzo delarik,
"Eliza-ahizpa" deitzen du.

d) BATAUNA PLURALIS-
MOAN: Aita Saindua ere alderdi
honetatik dihoala esan ditek. Ka-
toliko eginaz, bere tradizioak eta
pribilegioak utzi beharrik ez luke-
tela izanen esaten bait die Eliza
ortodoxo eta anglikanoei.

Baina, aipaturiko artzapezpi-
kua hori bera eskatzen du gaur ka-
toliko diren elizen artean ere: nor
bere bidea urra dezala; zentralis-
moak pikutara joan ditezela, beraz.
Horixe egin nahi bide du Alfrink-
ek Holandan; baina, oztopo gogor-
rik topatu du gizaraioak bidean.

JUDUTARRAK ETA ISRAEL NAZIOA ARABIAK TEOLO- GOEN BEGITAN

1968ko irailean, Batzar nagusi
bat egin zen islamismoaz. Batzar
hartan egindako hitzaldietatik pa-
sarte batzuk atereaz, liburuxka bat
atera berri da. Gaurko pentsaera-
mugimendu guztien aurka, antise-
mitismo zakar bat adierazten du
liburuak:

a) Judutarrak "Jainkoaren
etsai" dira, "gizadiaren etsai", gi-
zadiko zakur".

b) gaurko judutarrek beren ar-
basoen grinak jaso dituzte ondare.

d) jende pilo bat egiten dute
judutarrek, ez inongo herri edo na-
ziorik.

e) Israel zera da: "judutarren
historiazko eta kulturazko gaizta-
keriaren hezur-mamitze handiena".

f) Islam erlijio guztien gain
egotea, garantia bat da azkenean
gudua arabiarrek irabaziko dute-
naren alde.

ERREPRESIOA ELIZAN: BI BENEDITAR ABATE ZIGORTUAK

—Frantsoni, Erromako San Pa-
bloko abatea da; 1964ean aukera-
tua. Bere monastegia kanpora be-
gira lanean ipini nahi izan du, eta
laiko askorekin harremanetan jarri
du. Zenbait gaitan, eliztar nahiz
sozial nahiz politikotan, aurrera-
koi eta oldarkoi jokatu du.

Erlijosoen Kongregazioa as-
palditxotik jarri zen abatearen aur-
ka. Lehendabizi, Kasinoko benedi-
tar kongregazioko Lehendakariari,
San Pablori abatearen, barrutik,
azterketa bat egiteko eskatu zion.
Baita egin ere. Baina, azterketaren
ondorioa, Frantzoniren aldekoa izan
zen.

Joan den ekainaren hasieran,
beste erlijio-nagusi bati eskatu zion
beste azterketa bat egiteko: ea frai-
leek zer zioten alegia. Azterketa
hau ere, Frantzoniren aldeko ger-
tatu zen.

Zuzenbidez ezinda, eta halako
gizon "erantzulea" postu horretan
eraman ezinda, hona zer asmatu
duten. Frantsoni parte zeneko ka-
sinotar kongregazioren biltzar na-
gusia zokoratu egin du Erlijosoen
Kongregazioak, eta ageriko arra-
zoinik gabe.

Frantzoniren hitzak, hauk izan
dira: "Monastegiko bakea hautsi
dudala leporatu didate. Hona ene
erantzuna: zer esan nahi du frai-
leen bakeak? Patxadan bizitzea?
Gauza bitxia litzake halako bakea;
gauza bitxia, monastegia zenbaiten
patxadatoki bezala hartzea. Alienaz-
io bat litzake hori, eta ez kristau
eredu bat... Neretzat, lekaide baten
bakea, abateak at garraxika ari
den zuzengabekeriaren arduratuko ez
balitz, zuzengabekeriaren bake li-
tzake. Beneditar naiz. Benedita-
rrok, munduan jarduteko gara.
Lurlangintzan eta eskoletan ari-
tuak gara; gizarteak fruiturik a-
tera ezin zuen tokitan arituak. Eliz-



Bi beneditar abate zigortuak

tar huts litzakeen sistimarik ez
dago Erroman; aldiz, aginte poli-
tikoiari eta ekonomiazkoari loturik
dago. Begi bistan dago, aginte ho-
rren kirioak ukitu ditugula".

—Beljikako Maredsous-ko Abate
gazte eta herriari ere, antzeko zer-
bait gertatu zaio. Azkenean, azal-
pen ofiziala, hau izan da: dimi-
sioa eman duela.

Ageri denez, errepresioak badu
oraino bere indarra Elizan. Ezer ez
litzake halere, jokabidean creka
apur bat agertuaz-edo, arrastaka
eta zipotz atzerakoi dabilten zen-
baitekin berdintsu dihardutela iku-
siko bagenu!

EUSKAL HERRIKO ELIZA

—Donostian Erromatik haimena
hartua omen da gotzai-laguna (au-
xiliar delakoa) egiteko. Lanerako
izanen ahal da.

—Gasteizko Desamparados parro-
kian ez dabilta txantxetan, non-
bait. Euskal izenez bataiatzen den-
bora galtzeko betarik ez omen du-
te Bertako erretore sonatu den
Ilanas jauna lanpeturik dabil non-
bait horrelako lantxoetan nahaste-
ko. Halere, berak seinalatuko omen
dio bataia-lekua, bere seme-alaba-
ren bat euskal izenez bataiatu na-
hi lukeenari. Ez duk gutxi arra-
nopola!

IGUZKI BEROKO PARROKIA BATEKO KATEKESIA

Arrosarioaren debozinoa sortze-
ko adibidea: Bi motiko omen zi-
ren, adiskide minak biak. Halako
batean, bata gaixo erori zen. Eta
bere adiskidearen asmazioa: bere
arrosarioa hartu, eta bere adiski-
deari lepotik zintzilik ezarri. Eta,
ai miraria: bat-batean, motikoa
sendaturik!!!

Nork esan gero iguzkiak kaxke-
zurreko muinak lehortzen dituela?
AMUNSA

Eliza barruko burrukak

Ez da giro, ez, gure Elizan. Zenbat naaste-borraste bere baitan. Ertz
btean eskubitarrak, leengoari nai ta naiez, eutsi naiaz burruka gogo-
rrean; beste izkiñan berrizaleak, leenbaileen eta gupidarik gabe Elizako
erakundeak batekoz bestera aldatu bearrezkoak dirala diotenak. Alka-
rrekiko gure bizitza ez da beti gozoa Eliza barnean. Leen gure arteko
Gotzai geienak pentsaera berdiñekoak ziran. Gaur besterik da. Leengo
zale eta berri zale, bi sailletan berezita dakusazgu. Tarancon Kardinala
eta Guerra Campos Gotzai, garrantzi aundiko pastoral jokabideetan, ez
dotoz bat. Ez eta urrik eman ere.

Uztailaren zazpian, Telebisiotik mintzatu zen, asteroko bere jardun-
aldian, Guerra Campos Gotzai. Nizeako Eliz Batzar Nagusia aipatu
zuan. Batzar Nagusi artan, Arrio Erejearen aurka, Kristoren Jainko iza-
dea, sinismeneko egiazat onartu eta aitortu zuten Gotzaiak. Gerora or-
dea, Arriotarrekin (Kristoren Jainkotasunaren ukatzaileekin) adiskidetu
ziran Goi maillako Agintariak. Auei losintxa egitearren, Arriotarrekin bat
eta alkartzan asi omen ziran Gotzaiak. gainetik, Kristo Jainkoa zala
aitortzen zuen dogma Jainko Erriak salbatu omen zuen.

Arriturik utzi ninduen Guerra Camposek. Zer ote zen bere esan naia?
Okerrean egon eta okerretik dabilzala gure arteko Gotzaiak eta Jainko
Erriak (kristau soilak) berriro Eliza salbatu bear duela? Ez nuen kom-
penitu bere esan naia.

Edonork daki guztiz atzerakoi izan zirela Batzar Nagusian gure ar-
teko Gotzaiak. Leenengo txangoa amaituta etxeratu ziranean Gotzaiak,
gure arteko asko ikaraz izaturik agertu zitzaizkigun. Europa erdiko Go-
tzai aiek ez ote ziran gero erdi ereje?

Batzar Nagusiaren aurretik eta ondoren ere bai, gure Euskal Errian
Eliza eraberritu naiaz emen eta an apaiz asko agertzen zan. Kristau soil
askok ere gure Erriaren egoera tristeari begiratuta, aldaketak eskatzen
zizkion Elizaren jokabideari. Orrelakoak ez ziran guztiz atsegin gure
Eliz Agintarientzat. Ezkertar, biurri, ez esaneko, lotsagabe erantzule ziran.

Leen Gotzai Donostiara eldu aurretik, Eliza eta Erriaren gora-beera
eta arazoak agerturik, eskutitz bat bidali zitzaion. Apaizalde aundi bat
zen eskutitzaren sinatzaile. Eskutitz aren ondorena? Sinatzaile aietatik
bakar bat ere ez zutela erri aundi xamarreko Erretore egin. Inortxok ez
balio nunbait.

Garai artako apaiz eskubitarrak oso ziren Jerarkiaren menpeko. Aiek
ziran Elizako seme txintxo. Besteak? Oso biurri.

San Drokietan, etxe batetik, Debako korrida ikusten ari nintzan beste
apaiz batekin. Pentsaeraz oso desberdiñak izan arren, guztiz giñen alkar
maiteak. Beste bi apaiz urreratu zitzaizkigun. Aietako batek gure Ba-
rrutian gaur agintaritza aundia du. 339 apaizek ziñatutako agiria zekarten.
Gure izena ere nai zuten Agiriaren barnean. Nere adiskide jatorrak,
oso eskubitara izaki, eta galdera au egin zuen: —Jerarkitik datorrena
al da Agiri ori? Ezezkoa entzuterakoan, zorrotza izan zan bere eran-
tzuna. Inolaz ere ez det firmatuko.

Gaur ez dotoz leen bezin bat eskubitarrak Jerarkiaren. Ezker-
kerrarrak bezin erantzule agertzen zaizkigu eskubi-eskubiok. Auek, bear
bada borrokalarri gogorrak. Leen bezin otsan, apaiz eta esaneko ez
dira agertzen Eliz Agintariek gaur eguneko eskubitarrak; bizi bizi ku-
kurruru jotzen die.

Aundia benetan azken urte auetan eskubitarrak egin duten aldaketa.
Zer gertatu ote zaie?

Pentsaera eta jokabideetan bat zetozen Gotzai Agintari eta eskubitar
kristauak. Alkarrekiko aserrekir ezin zitekean. Nola izan ez otsan,
apaiz eta esaneko eskubitarrak nai zituzten neurri, jokabide eta pausoak
arzen bazituzten gure Agintariek?

Urteak ordea ez dira alferrik joaten. Gotzai zaarak badijoaz; gero
eta gutiago gure artean. Berriak dotoz; auek gazteak. Ez dotoz gure
Gotzaien pentsaera atzerakoekin. Ez dira askok nai bezin aurrerakoi;
eskubitarrak nai baiño askoz geiago bai ordea. Eskubitarraren jokabide
eta pentsaerak orain ez dotoz bat Eskubitarrarenekin. Emen dago koska.
Leengo Jerarkiak eta gaurkoak ez al dira Jerarki? Zergatik leenago ain
otsan eta esaneko? Gotzaiak, Gotzai agintari ziralako edo aien aginta-
ritza eta jokabideekin ni guztiz pozik nengoelako?

Ezkertarrak eta eskubitarrak Eliza barruan erantzule. Batzuk ertz ba-
tean, besteak berriz bestean. Beste asko naasian ezker eskubitarraren
arte... Zenbat zarata, zenbat buruauste, zenbat burruka.

Eliz barruko burruka ikusita, bear bada jota zaude; etsipen eta de-
esperazioz bete; argirik gabeko tunelean sartuta bezala. Zuretzat zu-
zendutako itzak dira Kristoren itz aiek: Sinismen gutiko gizonok, zeri
diozute beldur? Ekaitza ez da betikoa; Ekaitz artean Kristok salbatuko
gaitu. Ez uste izan alferrikakoak diren Eliz barruan Eskubitar eta Ez-
kerrarren burrukak. Guziak Eliza eta gizartearen onerako biur ditezke.
Ortarako pentsaera batekoak eta besteok kristau bati dagokion erara
jokatu bear. Nola? Urrengoan erantzuna.

AROSTEGITAR JOK

Iñoiz ikusi ez bezalakoa

Piper

Gaur jo, eta bihar ikasiko duzu

Bengoa HAMMOND
ORGANOS

Elektroakustiko-injenieritza

Victor Pradera, 27

DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baseritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

Amasorrain'dar Arantxa

lagun maiteari

«Agostuko txingorrek il zigun lore au».

Kimu bat
zigorrek
autsi du,
urdin
ta
garbi,
gure lore oria.

Edurra bezela zuritu zera,
kolpean
poliki
poliki.

Masail gorriak ustuta
irten zifan bidazti.
Orain
nun ote zabiltz kantari?

Usapal baten antzera,
etxetik irtena zera.
Usapal baten antzera.
Ainbeste tximist ta trumoi
argi gabe gu be ta goi.
Usapal, zure antzera.
Ama lurren sabelean
lo egin Euskal lurtean.
Berriz ikusiko gera.

Xabier Azurmendi

Baionako astea

Baionako Musée Basque
Marengo karrikan

Irailaren 4ean

10etan

Ipar eta hego euskal herrien
ekonomi har-emanak

Ramuntxo Kanblong

16etan

Herri baten hiritartzea: Baigorri

G. Bidart-en lana

21etan

Lantegi berri eta lur-berri

Donibane Lohitzuneko herri bu-
ruzagien gain.

Irailaren 5ean

10etan

Euskal musikari buruz

X. Bello Portu

16etan

Haurrak edergintzarat erakartzeko

Debako arte eskolak

21etan

G. Arestiren abestiak

Irailaren 6an

10etan

Gaurko literaturari begirada kritiko bat

I. Sarasola

16etan

Atzoko kazetariari bat: J. Hiriart Urruty

P. Lafitte

21etan

Gaurko kazetariari bat: R. Arregui

J. Intxausti

21etan

Poema irakurketa

J. A. Arza
X. Lete

Irailaren 7an

10etan

Paris, Bordele, Pabe, Bilbo, Donostia...ko euskal
ikasleen bilkura.

16etan

Euskal Unibertsitateaz

J. Haritschelbar
K. Santamaria

17etan

ERABAKIAK

OHARRAK

- Sartzeak urririk / jana eta loa 200 pta. / dena euskeraz.
- Izenak bidali berehala: Euskal Astea, Musée Basque, Bayonne 64.



Bittor Egurrolarekin elkarrizketan

Errenteriako jaiak zirela eta elkar ezagutzeko zoria izan genuen. Igaz, Saio egunez, oso txalotua izan zen, Bittor Egurrola eguerdiko jaialdian. Jendeak gogo onez eta arreta handiz entzun zituen gure bizkaitar abeslariaren abesti saioak, baita sutu txalotu ere. Geroztik txori abeslaria isildu zaigu. Orain Ingalaterra joan aurretik, berakin egoteko zoria izan dugu.

—«Gehiago ez abestutzea erabaki dut» —esaten digu bat-batean Bittor Egurrolak.

Dakidanez, abesti zereginari 1968 garrenean ekin zion. Geroztik hamaika saio eskaini digu Euskalerriko herrietan zehar. Hiru urte luzean abesten jardun eta gero, orain bere erabakiaren berri jaso dut.

—Zer dala eta, Bittor?

—Zaila da hitz bitan nere arrazoibideak adieraztea. Sarritan, giroak abesti batzuk eskatzen dituela dirudi, nere pentsakerarekin ados ez dauden abestiak, sasi maitasun abestiak, t.a. Baina bada beste alderdirik ere. Kitarra, abestia, musika landu egin behar da, ordu luzeak eskaini, eten gabeko saiotan jardun. Euskal abesti arloan gogoa, almena, lana eta denbora eskainiko dion jendea behar da, hots, amateurismotik irten beharrean gaude. Nik ez dut horrelako aukerabiderik...

Hogeitik gora dira berak sortutako abestiak, batzuren batzuk gogo onez entzun ahal izan ditugu diskoan grabatuak. Gazteriak Bittorrren kantak bereganatu ditu. Orain ordea, eta oraingoz, nik uste, isildu zaigu.

—Zein izan dira, Bittor, zure abesti gustagarri eta txalotuenak?

—Zazpi dira diskoan grabatu ditugan abestiak. Hauetatik ezagunenak: «Nire eskaria», «Gernikako Arbola», «Unibersalak» eta «Andereño».

—Elkarrizketari jarraipena ematearren, zer da euskal abestiari falta zaiona, eta zer ugariegi nabarmentzen zaiguna?

—Nere iritziz, dio Egurrolak, eta lehen bigarren galderari erantzun-go diot. «folklorismo» usaia nabari zaio gaurko protesta abestiari. Bestalde, «gorakada» gehitxo ikusten dut euskal abestietan: gora gure ohiturak, nire asabaren... amaren... Sasi protesta asko sobran dagoela esango nuke.

—Zer da, zure iritziz, protesta abestiak bete behar dituen baldintzak?

—Abesti gehienak protesta kutsukoak dira, baina kanpoekiko protesta abestiak. Guk AUTOKRITIKA ABESTIAK BEHAR DITUGU. Teoriaz hau oso polita da, baina «anti-komertzialak» izan ohi dira, gehiegi «molestatzen» dutelako.

—Hemen datza, beharbada, karkoa, askatu beharrezko korapiloa. Baina, lehengoari jarraiki zer da falta zaiguna?

—Euskal abeslari profesionalak behar ditugu, dedikaziño osoa eskainiko dien abeslariak. Bestalde, batasun estuago eskatuko nuke euskal abeslariaren artean, bakoitzak, berekasa, ahal duena eginaz dabil. Euskal abesti alorrean, emigratio-arekiko dugun prolematika ere aipatu behar litzakela derizkiot. Bai, neronek ere, une honetan,

UNIBERSALAK abestitik honoko hitz hauk daduzkat gogoan:

«Badakite unibersalak izan behar baina euskalduntasuna ta eus- [gerala
[kera oinharria.
Europa guztiz berria, benetako [alkartea,
herrietan finkatuta, ez jauntxo- [ekonomian...»

—Zuk, Bittor, zeure aldetik hezur-mamidun abestiak erabiltzen ahalegindua zaizugu. Zelan ikusten duzu gaurregun euskal abestiaren eta abeslariaren egoera?

—Galdera honi zertxobait lehenago erantzun didala esango nuke. Baina, bada gaurregun nire iritziz bide onetik dabilen abeslari-rik ere.

—Zuretzat gogozkoenak?

—Euskal zeru ilunean, distira gehien egiten duten izarrak hauek dituzu: Mikel Laboa artistarik hoberena, talde mailan Oskarbi, eta interpretazio sailean Estixu, hau dugu, nere iritziz, interpreterik hoberena.

—Azkenik, eta amaitzeko, zure abestirik gogozkoena?

—UMEZURTZA deritzan abestia da. Hemen abestiaren estrofa bat:

Umezurtza naz nere lur maite [barruan
kanpokoa sentitzen naz nere [etxean
hau dok itzela ta negargarriena Unezurtzak garala ez ohartzea.

Hauze dugu Bittor Egurrola. Euskal abeslaria isildu zaigu, baina jarraituko du jarraitu, euskal alorrean gartsuki lanean. Ingalaterratik itzuli eta gero, irakaskintza lanetan murgilduko zaigu eta UNIBERSALAK eta UMEZURTZAK gerala erakutsiko. Mikel Ugalde



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



EUSKAL JAIK DONOSTIAN - 1972

IRAILLEAN

1-ean:

Donosti Zaharreko kanpaiak joaz asiko dira jaiak, arratsaldeko zazpi t'erdietan. Zortzietan, Goizaldi taldearen dantzak Trinitate Plazan.
Bederatzietan, Zezen Suzkoa Plaza Zaharrean.
Amarrak eta erdietan, Trinitate Plazan, Lurdes Iriondo, Xabier Lete eta Benito Lertxundi.

2-an:

Goizeko zortzietan, txistularien kale-jira Donosti Zaharrean.
Arratsaldeko zortzietan eta amar t'erdietan, «Kanta Zahar» saioa, Trinitate Plazan.
Bederatzietan, Zezen suzkoa Plaza Zaharrean.

3-an:

Goizeko zortzietan trikitilarien kale-jira eta soka-mutuarra Plaza Zaharrean.
Eguardian, Estropadak.
Bostek eta erdietan trikitilari eta irrintzilarien leiaketa Trinitate Plazan.

4-ean:

Egun guztian, Trinitate Plazan eta «Cofradía Vasca de Gastronomía» delakoan, gazta, sagardo eta txakoliña-leiaketak.
Arratsaldeko zazpietan «Xenpelar» Sari-ko bertso-paperen sari-zabaltzea. Bertsolariak kantatuko dute.
Amarrak eta erdietan, Berriz eta Lekeitioko dantzari taldeen saioak, Trinitate Plazan.

5-ean:

Arratsaldeko zazpi t'erdietan Euskal Arteari buruzko elkarrizketa.
Amarrak eta erdietan, Trinitate Plazan.

6-ean:

Arratsaldeko zortzietan, gaurko kantak Trinitate Plazan.

7-an:

Arratsaldeko zazpi t'erdietan eta gaueko amarrak eta erdietan, «Argia» dantzari taldea Trinitate Plazan.
Bederatzi t'erdietan Zezen suzkoa Plaza Zaharrean.

8-an:

Goizeko zortzietan, txistularien kale-jira. Arratsaldeko zortzietan, doñu-herriko saica.

9-an:

Goizeko zortzietan txistularien kale-jira Donosti Zaharrean.
Eguardian, Rebote Zubietako pelota plazan.
Arratsaldeko lauak ezker, Umeen Egunan.
Arratsaldeko zortzietan, Valkarloseko eta Baztango dantzarien saioak Trinitate Plazan.
Bederatzietan zezen suzkoa Plaza Zaharrean.
Amarrak eta erdietan «Intxitxu» taldeak, «ARALAR» izeneko antzerki saioari ekingo dio Trinitate Plazan.

10-ean:

Goizeko zortzietan txistularien kale-jira eta soka tira.
Lau t'erdiak ezker, erromeria Miramon-en. Han izango dira dantzari, trikitilari, irrintzilari, bertsolari, kantari eta gaiñontzeko tximistak.

Oharra: Egunero, Novelty zinean «AMA LUR» filma jarriko da.

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA
Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)
Avda. de Francia, 1
— I R U N —

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 224440



Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla ta Noain-Beriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla. y Noain-Beriain.

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'uzu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabei bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN DITUA

BARRUAN DANAK EUSKAI.DUNAK

HERNANI, 4

DONOSTIA

AITA MUXIKA'REN IZTEGI BERRIA

(Bigarren argitaraldi onek 25 x 16 zentimetroko MILLA orrialde izango ditu gutxi gorabera)

1973'garrengo Urteberria baño len, AURRETIK EZER ORDAINDU GABE, arpidea eskatzen ba'duzu: Aita MUXIKA'ren DICCIONARIO CASTELLANO-VASCO laburtua % 30 merkeago jasoko duzu. Bial ordea zure seña OSOAK argi eta garbi zuzenbide ontara: P. Plácido Múgica, S. I. (Santuario de Loyola. AZPEITIA. Guipúzcoa).

NIKOLAS MENDIA

ESKU - LANETAN BEREZIKOIA
MAKIÑADUN AROZTEGIA

★

Eliza, 7

Urrutizkiña: 83 11 66

— ZESTUA —

ONDO BADABILL
Otsein DA



Udara'ko zozketa 3 BIZITZA

Abuztua ren 7'tik iraila'ren 9 arte diran milla pezeta bakoitzeko zembaki bat emango da, ta beste zembaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko, milla pezeta sartuezkero.

Iru bizitzako zozketa ontan Noiznaiko, Bizitzako, Erbesteratuen eta Aldi-jakiñeko kartillak sartuko dira.

Irailaren 9 arte da

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA



azpeitia

HERRIKO JAIK

Amaitu ziren Loyolako patro handiaren jaiak. Zenbait gizon zuhurrek dienez, gure Herri-festak gain behera doaz, bai alaitasun aldetik, baita euskaltasunetik ere. «Garai bateko saninaziotan zezen-enparantza bete gabe gelditu!».

Behar bada arrazoia izango dute hala pentsatzen duten gizonak. Zenbait sailetan ondotoz aldatu beharrean arkitzen dira gure Herri-bestak.

LEHENDABIZI

«Herri», izenpurua daramanez gero, herriarentzat izan behar dute noski eta herritarrek parte hartuta. Urtero-urtero nabaritzen den gertaera garbia zera da, alegia azpeitiar multzo ugari bat herritik desterratzen dela. Agian batek baino gehiagok egotziko likek: urte guztian jaiak etortzeko zai dela bazterrak ikusteko, eta munduaren ederra dastatzeko. Hau guztiau egia dela aitortzen dut; baina herriko bestak, asko eta askori erakarpen zipitxik sortzen ez diola ere bide-nabar esan beharra dago.

BIGARRENIK

Nekez baino noizpait, jaien egitarauen euskal-zaruela bat antolatu zen, hain zuzen Ondarruko Kresala taldeak jokatu zuen «Marifilak».

Batetik egokia gertatu zen, zarzuela euskal gai bat izatea, eta bestetik gure herriko Jose Mai Altunaren eresi lan bat hautatzea. Arraioa! zezen-enparantza ez zela bete baina bai horratio Zelaifitxoko aretoa! Ez ahal da aski nabaritzen herrian zer nahi den?

HIRUGARRENIK

Saninazio hirugarrenoz ganadu sariketa bat antolatzen da. Azpeitiko kaletarrek beti esan ohi dute: «hirugarren eguna baserritarrena». Beraz baserritarak nagusi egun honetan? Gizajoak! behiaren kopetan zenbaki bat ipintzeko eta hiru txakurtxiki hartzeko, bostsei ordutan itxoiten duten eta askotan (aurtengo lekuko) euri-istiletan, zeren oraino ez bait dute aterperik ere lortu.

Baserritarrek sariketaotan sosak irabazi ez baina, ondotox galeran ateratzen dira, atzeaurreen gostuak eta gainetikako denbora galtzeak nolatan ere haundiago izaten dituelako.

Bestetik, gisa horretako sariketaz zertarako? Alkateak eta Herri-gizonak, behien bizkarrak igortzitzeko? Baserritarren arteko herria eta harroxkokeriei su emateko?

Ez, sariketaotatik ez du nekazariak etorkizun xamurragoa iritxiko; gehienik ere bere bizitzan bortitza hitz goxoz lausengatua. Baserritarren benetako saria eman behar zaio, etorkizunari itsatsia dagoen saria, ez limosna ustela.

Ondorengo urtetan beste erabatekoa izatea nahi genduke hirugarren egun hau.

Gaurko baserriko aurrerapenak erakusketa bat izan dezake, lan-tresna, hazi, baserriko estruktura, kooperatibak, hauzo lanak e.b. Baserriko problemai aurpegi emanez, egun biribil bat eratu liteke, eta egiteko honetan «Lurgintza» elkar-teak parte hartu behar luke. Baserriarrei paternalismoak gairiditu eta beren oinez ibiltzeko garaia heldu zaie.

Herriko jaien azalpen hau bukatu baino lehen beste zerbait erantsi nahi nioke. Aurtengo besten egitarautxoan (programa de las fiestas patronales) alkatearen agurra euskeraz eta gaztelaniaz agertu zen. Errepublikar garaitik gaurdaino, Euskerari sarrera lehenengo aldiz eman zaio, eta bere esanahia erdaraz ere irakur ahal zitekeen erdaldunek aukera izan zezaten. Egitarautxo hau, herri guztian zabaltzen den alea da; eta egia esateko ez digu batera tripako minik emango aurreruntz ere gaztelaniaz edo txekieraz ateratzen badute, baina euskeraz ere ateratzea eskatzen dugu, euskaldunok ere aukera izan dezagun.

ANATSAN

ataun

Gure herriko guraso batzuek ondo dakite gaurko eskola, Patronatoa, umeak ze bide ederretik zuzentzen ari dan. Gogorra izan zan bere hasiera. Pedagogia berriaren hariari ez baitzioten askok heltzen. Jendea zegoen eskola nazional-etako pedagogia zaharrari lotuta.

Ikusirik, ordea, andereño gazteen lan jatorra, guraso batzuk bizkortu ziran bere semeak Patronatoa bialtzera. Egun gutxitan Eskola nazionala umerik gabe gelditu zan eta ateak itxi beharrean arkitu zan.

Eskola nazionala ixtea pauso garrantzitsua izan zan herriko umeen heziketarako. Patronatoko eskolak herriko gurasoen asmoak bete zituen. Ez baitzan ezertxo ere ongarririk semeak Beasaina, egunero, eskolari bialtzea, herrian itxurazko ikastetxerik etzalako.

Gauzak horrela zeudela, beste arazo bat sortu da gaur. Heziketa Ministeritrik, bi urteko bizia ipini dio Patronatoko ikastetxeari. Hemendik bi urtetara, Patronatoa, eskola nazional edo Eskola Pribatu Concertada bihurtu behar da.

Berriz eskola nazionalak herrian jartzea, negargarria izango litzake. Herrian Patronatoa irixteko horrenbeste lan eginda gero ez dago atzera jotzerik. Burugabekeria da eskola nazionala nahi izatea. Lehen ere badakigu ze abelera izaten duten estadiuren eskuetan dauden ikastetxeak. Ataunen, eskola nazional-etako maixu bat ez zan herrian finkatzen. Urtero maixuak aldatzen ziran, eta abelera erabateko zatarra agertzen zuten. Abelera txar hau ikusita Gabillenek D. Juan zanak utzi zituan bere ondareak herrian itxurazko ikastetxe bat jartzeko. Bere azken-nahia hori izan zan, eta hor dago bere dirua benetako ikastetxe bat herrian sortzeko.

Gauzak orain dauden bezela, Patronatoaren jarraitzailea Eskola Pribatu Concertada da. Eskola honek nahiko ziurkeria ematen digu. Eskola Concertadaren alderdi honak hau dira:

—Diru aldetik, ministerioak laguntza ematen du.

—Profesoreak, herriak aukeratzen ditu.

—Eskolako zuzendaritza herriak eramatean du.

—Pedagogia maila, herriak erabiltzen du.

—Umeak bere herriko giroan zuzentzen dira.

Ez dago eskola nazional-etara bihurtu beharrik, alderdi hau eskuan edukita. Gurasoak esnatu pixkabat zuen semeen etorkizuna al dan ondoena antolatzeko. Udaltzeko jaunak ere uste det prest egongo dirala etorkizuna duan eskola bat eratzeke. Inork baino hobeto hoiak dakite eskola nazionalak ze zatarrak izan diran gure herrian. Ez det uste asmo haundirik izango dutenik lehengo zabarkeria berriz ere San Martinen pizteko.

Utz mesedez bide zaharrak eta jarrai aurrera ere ondo emandako pausoei.

J. J. D.

berastegi

Izan berriak dira herri polit eta jatorrontako festak, «Salontzoak». Herri honen historia, bai antzinakoa eta bai oraingoa, burrukatu eta gerlaz beterik dago. Hor dauzkagu Kanpionek esaten dizkigun gerlak Gorritarren eta beste nafartarren aurka. Orain ere gerla batean sartuta gaude, hor dauzkagu azken gora-beherak Leitzeko fabrika ospatuakin... Baina nork egiten dio aurka etsai hodri? Herriko erakundeek lo lasai egiten dute edo lo egin arazten diete, dirudienez. Baina herriaren abotsa alde guzietatik entzuten da eta bere erantzunak ere gainera azalera, azaltzen dira.

Egun hauetan geure herriko jendea kalean ikusi dugu. Itxuraz oso alai zegoen baino barru aldean bere kezka eta bere samintasunak nabari zitzaizkion; nahiz egun alaiak izan ez bai ditu ahazten bere mintasunak eta mesprexuek eta ezin bai ditu ahaztu bere alde gatazkatu duten semeek eta egun zoritxarrean arkitzen direnak, bere alde maitasun guziekin bizia emateko prest zegoen semeak Ezin ditu ahaztu bere semeak direnak eta

orain geure ondoan ez daudenak «destinoak» hola nahi izan duelako eta herrirentzat hainbat aldiz paregaitzatu direnak. Ez, ez zaituegu ahaztuko!

Une baten zai gaude geure festak egun batean, denentzat alaiak izango direlako, ez itxuraz, bai funtsez. Hortarako haize berriak geureganatzea beharrezkoa ikusten dugu. Aize hauek Arratetik Auzaolderaino iurtzi behar luteke eta Amerin eta Azpikoetxean susperturik era hontan, Ameraun eta Plazaolara iritxi daitezten.

Aurtengo festak igaro dira baina gure bihotzetako samintasunak barruan geratzen dira, «salontzoetan» zeuden bezala.

Herritar bat

mendexa

Igaro ditugu erriko jaiak; abuztuaren leenengo eta bigarren egunak izaten dira.

San Pedro kataietakoa dogu Mendexako zaindaria.

Aurten, Amortoko dantzariak euki genituen egun guztian. Saio ederrak egin zituzten aguerdian. Arratsaldean bikoteentzat sariketa bat egon zan.

Amortoko dantzari taldekoak bakarrik aurkeztu (presentatu) ziran. Eurentzat izan ziran sari guztiak. Tamalgarria errotarik ez izatea, baiña Mendexan ez dago dantzarako zaletasunik; gazteriak ez daki dantzan. Ia gaztetxoek ikasten daben.

Gero, pelota jokia errotarik jokatu eben. Txakartegi anaiak Iturraspe eta Arrillagaren aurka. Leenengoek irabazi eben, 22 ta 9.

EZKONTZA

Abuztuaren 2an ezkondu zan Mendexako elizan, gure lagun aundi Jose Mari Epaltza Klemen Ibarrondogaz. Zorionak!

ERIOZAK

Ekainaren 16'an il zan «Zelaiena» baserriko Nikolas Goenaga, 58 urte zituela.

Uztailaren 11 an, erriko sakrista, 41 urte zituela. Bost ume-txoren aita bera.

Abuztuaren 15ean, Jose Felix Urkola, 79 urtekoa. Goian begoz.

Euren etxeko eta senide guztiei laguntzen deusegu atsekabeen.

Txakartegitar Jose

bergara

BITZABALAK EDO ANBROSIO JAU-NAREN KARABINA GUZTIZ AGUR GARRIA

Oraingo ontan Bergarako euskaltzaleek zastada gogorra izan degu bitzabaleko ezbehar baten bidez.

Aurreko zenbakiko atal ontan irakurleek irakurriko zuten nolan nekaxa iaio, apal eta trebe bat galdu zaigun il onen iruan, erri ontatik Arrasatera zijoala.

Gasteiztik eta Mekolalderako trenu kendu zuten irabazpiderik ez zulako. Au kentzean, esan zitekean bertako bitzabal edo karretera onduko zutela.

Irakurleek ez dakit inoiz igaroko ziran Deba ibaian zear dijoakigun bitzabal ontatik, gu bai, ta orregaitik deadar egiten degu geure eskubidean gaudelako.

Badakit aldizkari beartsu baten idazkaria gauza aula, gauza utsa dala, batez be ain gutxi irakurtzen dan aldizkarikoa, baiñan ez zaigu ajola, gure eginbeharrek zintzo beteko ditugu, oraingo ontan, bitzabalen zear dabilizan gizadiaren alde, gure errien alde.

Oni edo ari alperrikakoak dira orain erruak jaurtitzea, joanak, joanak dira Jainkoaren pakera ta bizi geranoi doakigu gauzak bear dan neurrian jartzea edo aalegintzea gauza auek beardan bezela egon ditezten.

Deba ibaian zear dijoakigun bitzabal au ez da bitzabala, obeki dei dakioko gurti bide edo asto pista.

Bere lurra zuloz eta arriz estalirik daudelako; bere bazterrak txikituak eta mirrinduak, estuak, peralte eta petrill barik; inoiz ikusi degu bateonbat galdu danean alako burnizko istura bat jarri duela. One-la gertatu da Soraluzeko sarreran

Txurruka galdu zanean, edo Uritxako zubian italliar ura erori zanean, edo Bergarako burdinolako zubian Barakaldoko Fernandez jauna jausi eta urak eraman zuanean Mendaro baiño arutzago. Jaunak, au ez litzateke alan bear!

Ernandez eta Kabraltar Balendin, Amasorrain eta Usabiagatar Arantzak. Zuk utzi dezun utsunea ez da erreza izango betetzen. Agur Arantzak, egun aundirarte.

MENDIKOI

EULOGIO
ALDASORO

Arrandegi eta Fruteria
Zubizarreta-enea
Urrutizkiña: 33
SAN MARTIN - ATAUN

JON
SUKIA

HARATEGIA
Iztator-Etxea
SAN MARTIN - ATAUN

JOXE MARI
GALPARSORO

IDORTZE LANTEGIA
Etxetxo berri San Gregorio
— ATAUN —

MIREN
GOIKOETXEA

Eraman-ekarriak
Olalde Etxea, 3
San Gregorio
— ATAUN —

Sagarna Anaiak

ZURE BEREILENTZAT GARAJE EGOKIA
Gasolinera ondonan Urrutizkiña: 83 10 99
— ZESTUA —

BERGARA

OINETAKOAK
Naranjadi Enparantzan
— ZESTUA —

RELOJERIA ECHANIZ

AUKERAKO ORDULARIAK ZURETZAT
Jesusen Biotza, 8
— ZESTUA —

MIGEL SARASOLA


AUTOBUSAK

LAZKAON

Urrutizkiña: 89 12 59

Donostian: 41 92 56

ETXEBESTE ANAIK



ZORIONIK BEROENAK OPA DIZKIZUE JAI AUETAN

— ONDARRABIA —

A T A U N

Gaztetxoak

Gaztetxoak nonnahi aurkitzen gara: ala kaleetan zehar ala hibai bazterretan. Gaztetxorik gabeko herririk ez dago. Ezta behar ere.

Gaurko lantxo honek, 12-15 urte inguruko gaztetxoetat idatzia izan nahi luke.

Era askotako gaztetxoak gaude. Zenbaitek dibersioa bakarrik du amets. Beste batzuk herriaren alde presta nahi dute eta beren etorkizunean pentsatzen hasita daude.

Adin hortako hemengo gaztetxoak, badugu gutxi-asko Euskal Herriaganako maitasuna. Maitasun hori nola ase ez dakigu. Baina badugu, gure ustez bederen, abiatzeko bide bat. Bide hortan aurrera ateratzen ahalegintzen gara.

Bakoitzak bere bidea dauka buruan eta hura defenditzen du. Beraz sailtxotan banatuta gaude. Eta gainera buru galdu samar gabiltz. Ez bait dut uste adin hortan bide jakin zertu bat hartzeko ezaguerarik dardukagunik. Guk bide asko ikusi ea aztertu behar ditugu. Ez dizkiogu oraindik geuren buruari bideak itxi eta aukerak gutxitu behar. Gure pentsakera sakondu eta sendotu behar dugu.

Herri bateko gaztetxo guztiak elkartu eta talde kultural bat sortu behar genduke. Talde hoietako eginkizun batzuk hauek izanen lirakeke, hots, euskal alfabetatze ikastaroak, euskal jaialdi ta antzerkiak eta abar eratzea. Baita euskal liburutegi bat sortzea ere.

Beldur naiz ordea, gauza hoiek egin ahal izateko gaztetxo nahastu eta pertsona batzuen agintepean eroritako gehiegi ez ote dagoen. IRAULTZA hitza erabiliez gero gizon eta emakume direlakoan geratzen diren gaztetxo ugari ez al dago?

Ene ustez, geure hizkuntza gehiegi baztertzen dugu. Euskaraz baino gaztelera idaztea nahiago duten «euskaldun» izeneko gaztetxo asko dagoelakoan nago. Egia da ez dugula leku egoki asko hori egiteko. Hots, gure asmoak, gure nahigabeak eta abar azaltzeko. Ederra izanen litzateke aldizkari guztietako orrialde bat bagendu! Nafarroan argitara ematen den «Príncipe de Viana» aldizkariak dadukan bezala, adibidez.

—oOo—

Adiskideok! esna gaitzen bada behin betirako. Ez gaitzen morroi bihurtu. Ikus dezagun gure ta Euskal Herriaren etorkizuna bide ezberdinetan abiatu. Presta gaitzen gure Herriaren alde. Hurbil gaitzen gauza argietara. Landu ditzagun gure hizkuntza, erlijioa eta abar. Inor askok ez dugu pentsatzen euskal dantzak, txistua eta beste euskal jatorrizko aunitz gauza ikastea ere. Zeinen gauza ederra izanen litzakeen, Euskal Herriko herri guztiak dantza talde ta txistulari sailtxo bat balute. Baina hauek denak, zenbaiti ttipikeriak iduritzen zaizkio. Ataunen dantza talderik ez dago eta txistulariak ere urri. Ea, datorren urterako sortzen den, hobeto esanda, dugun! talde on bat.

Beraz badadukagu zertan saia. Eta gure helburua ez dedila batetik bestera ibiltzea izan, gizon eta emakume izaten saiatzea baizik.

Halaxe izan dedila.

T.

Ataungo Elizen Kondairia

Badakigu Ataun hiru hauzok osatzen duela. Hauzok bakoitzean Eliza bat aurkitzen dela ere bai. Gaurko lantxo honetan, hiru eliza horien historia, pittin bat ikusuko dut. Aiaikoaren berri On Jose Migel Barandiaranek eman zidan. Beste biak nolakoak ziren, On Jon Dorronsoren «Clero y Religiosos de Ataun» liburua dela bide jakin izan dut.

AIAKOA

Santa Isabel izenekoa dugu hauzok honetakoa. Oraikoa, hogeigarren mendean egina omen da. Lehenengo parrokiak, Iruñako gotzaiaren baitan edo babespean 1794 garrenean egin omen zan.

Honek Iruñako gotziak, alegia-baimena ematean, bi baldintza ezarri omen zuen: bata, Santa Isabel egunez meza entzutea. Bigarrena, ibilaldi bat egitea, hots, San Martingo kurutzea goizean Aiaiko elizara eramanez gero, ilunabarrean berriro itzultzea. Ibilaldi honetan herriko erretoreak eta agintariak joan ohi ziran, beste zenbaiten artean. Ohitura hau, oraintsu hautsi da. Parroki hau, «Toki Alai» taberna dagoen tokian omen zegoen.

Oraikoa, 1911-tik 1913-ra, erreto-re etxeko baratzen egina omen da. Eliza hau egiteko arrazoiak bi hauek zirela dirudi: Alde batetik lehenengo txikia elako, eta erortzeko harriak erretoreak eta agintariak joan ohi ziran, beste zenbaiten artean. Ohitura hau, oraintsu hautsi da. Parroki hau, «Toki Alai» taberna dagoen tokian omen zegoen.

Bada ohitura sandu honengana promesa eginik etortzea. Promesa honen helburua zera izaten omen da: haurrak hitzegiten ikastea.

SAN GREGORIOKOA

Hemezortzigarren gizaldian, 1794

garrenean Ataunen bi parroki egi-eta San Gregoriokoa. San Gregorio teko agindua jaso zan, hots, Aiaiko parroki ezartzeko, «Larruntza-muino» deritzan lekua aukeratu omen zan. Baina aukeramen hori baztertu beharrean aurkitu ziren. Zergatik? Itxura denez, diru eskasiagatik. Orduan, lehengo ermitu berri-eta berau parroki hautatu omen zuten.

Urren urtean, 1795 garrenean, 5.150 pezeta eman zitzaizkion elizari erretore etxea egiteko.

Lehen, San Gregorioko ermitan bi aldare omen zuden: bata Gregorio Deunari eskainia eta bestea San Juan Bautistari. Bazegoen Juan sanduaren irudia ere. XIX mendean, ermita parroki bihurtu zenean, hiru aldare zeuden elizan: bata Gregorio Donearena, bestea Ama Birjiña Errosariokoarena eta hirugarrena. XX mendean hasieran bost aldare egin ziren: Gregorio deunari, Jose deunari, Errosarioko Ama Birjiñari, Jesusen Bihotzari eta Ama Birjiña Hiletakoari eskainiak.

Duela hiru urte barritu zen eliza, On Imanol Etxeberriaren babespean. Aldare bat eta bi sandu daude.

SAN MARTINGOA

Elizaren lehen zatia XV-XVI mendetan egin zen. Eta mende honen azken alderkaio amaitu zen. XVI mendean erdi aldean hasi eta, Lazkanoko etxea ez dago ados San Martingo biztanleekin. Hauek berehaldiko ahaleginak egin bait zituzten, herriko harma-harria elizaren sarreran ipintzearen.

Eliza berriak, 1.037 metro daduzka luze zabalean. Luzean 42,72 metro eta zabalean 24,30 metro daduzkalarik.

TRIKUARRIETA

ATAUN ETA BERE KONDAIRA LABURRA

Lau mila urtez honuztik agertzen hasten dira hemengo jendearen aztarranak. Gauza hauek agertzen dira, batez ere: heurak bizi izandako tokiak eta heuren hildakoak ebortzitate lekuak. Limurritako koba edo harpean, duela 4.000 urte inguruko gizonen aztarranak aurkitu dira: sutoki, ondo landutako harrizko harma batzuk, apaingarriak eta abar. Hilobi edo trikuharriak berriz, asko dira Ataungo lurretan: Aitxu, Balenka-leku, Muinan, Larreluze, Saltsa-mendi, Intxus-buru, Bernua, Hiru mugarrieta, Baiarrate eta abar adibidez.

Leku hoietan agertu diren gauzei begiratuaz eta hlarri hauek dauden tokietaz jabeturik, garbi esan dezakegu abere-zaintza zerebiltzela garai haietako ataundarrek. Hoiel esker badakigu non ziren heuren saroiak, txabolak eta abar. Geroztik, bizikera berdina erabili izan zuten gure lehenagokoak aldi luzean, baina geroago, duela 2.000 urteko heuren ezaugarriak agertzen dira; batez ere erromatarren garaiko diruak azaldu bait dira.

Adibidez, Donosti elizañoa egon zen tokian; Otadizelaiko soroan, alegia. Agian, garai hartakoa izanen da «Jentil-Baratza» azpian agertu zan urrezko eratzuna: zuhaitzak ebakitzen ari ziren langileak aurkitu zuten eta hauek Arindar Juan jaunari eman. Honek, ikusteko eta ikasteko, Lasatar Joxeri eman zion gero Donostiako Museora sartzeko. Eta honek —Lasatar Joxek— Donostiako Museora eramanez zuelazko hitza eman zion. Jakin nahi nuke eratzun hori, mota hortako eta garai hartako Gipuzkoan tresna bakarra, Donostiako Museora iritxi den ala ez.

—oOo—

Pasa gaitzen Erdi-Harora. Haro honetan, Jimenez de Rada izeneko idazleak aipatzen du Jentil-Bara-

tza. Baina ez izen honekin, «Ataungo Gaztelua»kin baizik. Nahiz eta Gorosabelek esan gaztelu hori San Gergorioko eliza dagoen tokian egon zela, orai badakigu Jentil-Baratzen zegoela. Baita ere badakigu gaztelu hortan egon zirela Nafarroako erregeak izentatutako agintariak, XIII gn. eta XIV gn. mendean. Horrela diote Campionek eta Altadillek (honek, Campionek baino geroago argitaratu ditu berri hoiek). Beraz gure gaztelua ez zegoen Castillako erregearen mendean.

Bi iturri hoietatik datozkigu beste berri hauek ere: Garai hartan abere asko zebillela gure mendietan; abereak zirela eta hemengo lagunek heuren artean estabaida asko erabiltzen zutela; baita inoiz guda ere, batipat jauntxoan eta Jentil-Baratzen eta horrelako beste gazteluetan zeuden zaindarien artean. Burruka honek Lazkanoko jaunaren eta Ataungo herriaren artean luzaro jarraitu zuten, geroztiko agirietan ageri denez.

Ataunen, Erdi-Haroren azken aldean, baziren hamabi edo hamalau etxe nagusi beren lur landuekin; gainera, etxe hoiek bazituzten lehendik beren saroiak, abereak, hazteko. Sasoi hoietan, baita beren hilorak eta txabolak ere. Ondasun hauek denak ordea, ez ziren bakoitzarenak, herriarenak baizik; eta herriak pertsona bakoitzari erabili zitzen emanak.

Gai hortan ere ari zen aldakuntza egiten: gudak zirela, gosetea zetorrela edo gaitzak zetozela, herriak behartuak ziren askotan zorrak egitera, eta zorrak ordaintzeko laguntza behar. Hortik heldu zen herriaren zenbait lurralde saltzea, sasoiak eta beren inguruak batez ere. Saroi hoiek izan dira herri honetako etxe gehienek —ez guttien— sorlekua.

Orduko jendea ez zen abere zaintzatik soilki, bizi; industriatik ere bai. Esate baterako, bazen San Gregorio hauzean ola bat, batzuei lana ematen ziena: ola gizoni, meha-

tzailei et aikaskinei. Garai haietako lanen ezaugarriak dira gure hibaietako zepak, mendietako mehatz zuloak eta beste.

Lurren bakarjabetza ugaritzen hasi zenez gero, nekazaritza hedatu zen gure herrian; Baina beti abere zaintzaren ondoan. Haatik herri-lur asko izan du Ataunek eta hor ibili dira ataundarren abelgorri, betizu, behor, ahuntz eta ardiak.

Ez dira beraz lurak hutsik egon: han hemen, txabola, hiloor, berda eta saroietako eskortak. Hortik igarri genezake zertan zebilan gure aurrekoen bizikera, lagunak bezikerari buruz ere zerbait adierazten digute ordutik datozkiun eliza eta elizañoak, Horrela, aipa ditzagun Donosti elizañoa, lehen izentatua, San Martinen eliza, lehendik zurezkoa, gero harrizkoa, San Gregorioko elizañoa eta geroagokoa, Santa Isabelena (Aiaikoa). Gerostikakoak noski, Iturri-Santun (Erremedio) eta Larratze-ondoan zirela elizañoak.

Garai hartako ataundarrek erlijioaren mamia ere bazarribilkiten heuren pentsamenduan: hori adierazten digute ludiko alderdi guztietara Kristoren sinismena hedatzea hemendik joan diren gure herritarrek.

GIZA-AZKAZIA

Duela 4.000 urtetik gaur arte ez da ezer asko aldatu giza-azkaria. Lau mila urte inguruko giza azkazia honek, «euskal-azkazia» du izentzat, bere ezaugarriak honoko hauek dira: Burua, «Meso-kefalo» kideka, hots, ez oso luze eta ez zabal; sudurra, melarra ta luzea; okotza ere nahiko melar eta irtena; bekokiak berriz, irtenak; eta aurpegia, hiruki antzekoa.

TRIKUARRIETA

Oharra: Beste batetan, geroztikako berriak ematen saiatuko naiz.

IPUIN ZAHARRAK

Gaurkoa dugu lehenengo aldia, aldizkari baten orrietan guk egindako zerbait argitaratzera ausartzen gara. Ez dugu nahi azkena izatea.

Bi ipuin honekin agertu nahi duguna zera da: herritar askoren heziketa-maila. Guk, kalekumeak izan arren, ez dugu onartzen baserritar askori egin ohi zaien burla ta farra. Baserritar asko ta asko, makina bat kalekume baino bizkoragoak dira; hori azaltzen da ipuinetan. Bata ere garai hartakoen azkartasuna azaldu nahi dugu; alegia, ipuinak bertsoekin osatzeko ahalmena zedukatela.

—oOo—

Behin batean, Pasaiako kaian, baserritar bat omen zegoen. Han zegoen itsasontzi eder eta handi bati begira. Hori farra egin nahi izan zion bat inguratu ondora eta galdetu omen zion:

—Itsasontzi honek zenbat balio ote du?
Eta baserritarrek erantzun:

—Ez dakit ba nik, nik ez dut entenditzen hon-taz eta.
Besteak:

—Bai gizona, begira zaude eta edukiko duzu iri-ziren bat.
Eta orduan baserritarrek:

—Abuztuko bi eguneko euriak aina balio ote du?

—oOo—

Bahin batean asto bat Nafarroatik ardoz kargatuta zetorren; otsoa berriz, Nafarroaruntz. Astoak edaria kentzeko beldurrez, aurrez esan omen zion:

A otxango, otxango egarri bahaiz egarri bazedukak edari.

Eta otsoak erantzun:

Ez nauk, ez nauk egarri baino bai goseak larri orain jan behar zizkiat hire burua ta belarri.

Astoak:

Hor goian zegok ermita San Bartolome deritza: Nik meza bat entzun artean otxomak biok aruntza.

Astoa aurretik eta otsoa atzetik, han joan ziran ermitara. Astoa elizan aurretik sartu, bi ankakin jo ostikoz atea, eta berau itxi zion otsoari. Orduan otsoak esan omen zion:

Asto zaharra mukizu, sobre ta gehiegi dakizu nik urrena harrapatzen zaitudan lekuan mezarik entzungo ez dezu.

Eta orduan astoak:

A. otxango otxango azie, gaztetan gaizki hezie bihar jango banauk ere badiat hiregatik gaurko bizie.

Nekane eta Aintzane

ELEBITASUNA ETA IKASTOLA

Egunetik egunera geiagotan itzegiten eta idazten da gaur elebitasunari buruz. Gero-eta garrantzikoago dirudi arazo onek. Itzez beintzat axola aundia opa zaio aldi ontan, ia-ia «modan» jartzeraio.

Era askotara ar daiteke, ordea, ele bi edo izkuntza bi jakitea eta erabiltzea. Zenbaitek onela artzen dute: izkuntza bat, legez edo egituraz beartuta nagusi izatekoa, irakaskintzan eta beste arazorik geienetan erabiltzekoa; bestea, berriz, etxerako eta lagunarterako doi-doi; beraz, irakaskintzan bete-beteko sarreerarik ez duana, errukiz emandako zirrikitutxoren bat besterik opa ez zaiona.

Eta ezin uka, geien-geienetan onelatsu artzen dutela tamalez.

—oOo—

Ar daiteke, ordea beste era batera ere. Gurasoengandik eta lagunartetik dakargun izkuntza artu oiñari eta ardatz giza-nortasunaren isokuntzarako; gero, jakia, asieratik izkuntza ortan sustraitu bete-betean bakoitzaren ikasketa eta eziera osoak. Oiñarriak edo zimenduak ongi sendotu ondoren, orduan asi aien gainean beste izkuntzen ikasketa eraikitzen.

Orra bi ikuspegi, bata bestearen ukatzaille, gisa askotako beste zenbait iritzi alde batera utzita. Bietan zein, ordea, gizabidezkoena?

Esan bearrik ere ez, bi iritzietan

zein dan burutsuena, bietan zein dan jakintza-aurrerapenen arikoa. Eta zorionez bide ontatik dijoaz ikastolak beren eziketa-lanean, aur euskaldunak euskeraz eskolatu eta eziaz oiñarrigintzarik jatorrean. Gero zortzi urte dituzten inguruan ekin gaztelera naiz-ta frantsesa irakasteari.

Askoz sakonago eta oparoago aztertze gaia da, noski, eskuarte-koa. Aipatzea besterik ez gaurkoz.

—oOo—

Ontatik neurtu, «parbulario» deritzaion txikientzako irakaskintza (3, 4, 5, urtekoena) ele-bikoa dala esatea, zenbateraiñoko burugabekeria dan. Erri aurreratuenen eta UNESCOren saiaketak baztartzeraioñoko itsukeria, gutxienaz ere.

Besterik uste izatea eta zenbait eskeintza sinestea, berriz, txoriak sugeen txistuz bezelatsu, iñozontzako engaigarrietan lilluraturik gelditzea izango litzake.

Zestuari dagokionez, guraso asko ari dira gero-ta sakonago ikusten arazo onen garrantzia. Aitorpen onen argibidetarako —eta emen geiagotarako tokirik ez daukagunez— ikus daitezke zenbait zeatzasun, Zestuako jaiak dirala-ta AGUR euskal-astekariak ekarriko duan orri berezira bidalitako idazlanean.

Garbi dago erri xeeak egunean baiño egunean arreta geiago opa diola ikastolari. Esan ote daiteke

beste orrenbeste, egitura eta erakundeei dagokienez? Eta erriaren ordezkari-ta daramakitenek, zer?

Elebitasuna lege izan dala esango genduke Euskalerriko udal-gizoen artean: beren batzarretako jarduna izkuntza batean eta ondorengo agiriak bestean. Euskeraz itzegin eta erderaz idatzi, alegia.

—oOo—


Baiña ortatik aurrerakorik? Erri-gintzan ain garrantzi aundiko gauza dan elebitasuna aal bezain egoki lantzeaz gainera, gure errietan zegoen utsune galanta bete du ikastolak. Bear ainbat irakasle ta ikasleku ez zeuden garaian eta ez dau den ontan, zerbitzu eta mesede ederrik egin dio ikastolak erriari.

Ikastolak izan ez baziran, diru-txauketa mardulagorik egin bearko zuten gure errietako udal-etxeek; edo-ta ume-mordoak eskolatzeko utzi. Orain, ordea, egiñik dagoenari eta lanean ari danari eskerrik opa ez, laguntzarik ez eman eta zenbaitetan babesa ere ukatu. Eta beste nolerebateko ikastetxeei bai gogotsu eta bete-betean lagundu.

Azken-azkenean eta muin-muñera jota, nortzuegandik bildutako ondasunak ote dabiltza —dana batzuentzat, besteentzat utsa— ain alderdikeri sumingarriz banatzeko?

GAZTANAGAK

ZESTUA



“DANONA”

Zestuako etxagintza elkarte

Zestuako jaiak direla-ta, herriko elkarte baten berri ematera noa. Nire ustez, herrian baditugu behar bezala ezagutzen ez ditugun elkarteak, eta horietako bat DANONA koperatiba hain zuzen.

Lantxo honetan, elkarte noiz eta nola sortu zen, egin diren eta egiten ari diren lanak, koperatibaren jokabidea eta elkartaren helburua aipatuko ditugu.

1. DANONA elkarte noiz eta nola sortu zen.

Zestuako “Karitas”-ek, galdekizun batzuk zabaldu zituen herrian, orain dela hamabiren bat urte, eta erantzunak jaso ondoren, etxe bizitza premia ikaragarriaz arduratu ziren.

Arazoa zuzentzeko, etxagintza elkarte bat sortzea iruditu zitzairen egekiena, eta 1961 urtean hain zuzen, lanean hasi zen DANONA koperatiba.

Lehendabiziko urratsak emateko, zestuak hain bildu ziren:

On Manuel Etxaniz, Jazinto Zulaika, Patxi Irure, Jose Ugarte, Xabien Iriondo, Imanol Alberdi, Jose Luis Etxaide eta Iñaki Sorazu. (Barkatu, norbaitez ahaztu baldin banaiz).

2. Koperatibak egindako lanak.

DANONA elkarteak, Gipuzkoako lau herritan jardun da etxagintzan, eta etxe bizitza sail handiak eginak ditu, ondorengo zenbakiek adieraziko digutenez:

	Bukatutako etxeak	Egiten ari direnak	Laister egitekoak
Zestuan	123	14	
Azpeitian	144	80	
Azkoitian			36
Berrokin	18		
Beraz, guzira:	276 etxe bizitza egin dira	202 " " egiten ari dira	36 " " laister egiten hasiko dira

3. Koperatibaren jokabidea.

Etxe sail bat egiten hasterako, batzar nagusi bat egiten dute gero etxe jabe izango direnak, eta batzorde bat aukeratzen dute, batzar nagusikoen ordezkari izan dadin.

Batzorde honek eta elkarte zuzendariak, etxeei dagozkien arazoak eztabaidatzen dituzte teknikoekin. Baita kontratistei dei egin ere, etxeak egiteagatik, bakoitzak here presupuestoa eman dezan. Batzuetan, etxeei dagozkien lan sail bakoitza ateratzen da subastara, etxe bizitzak merkatzeko biderik ikusten baldin bada.

Esan dezagun beraz, batzar nagusian aukeratutako batzordea dela erabakitzaile etxe arazoetan.

Baita ere, koperatibak, alde zurretik ateratzen du, ahalik eta zuzenen, egingo diren etxe bizitzak izango duten salneurria.

Hasieran ateratako kontuak, oker handirik gabe hor nonbait ibili chi dira, benetan gero kostatakoarekin.

4. Elkartaren helburua.

Etxe berri asko egitea soil soilik, ez da elkartaren helburua. Hori irixtea ez da hain zaila. Gizartekoa dela gizona adierazi nahi liguke elkarteak zestuarrori, eta ez bakarti ibiltzeko zerbaiz. Guztiok elkarturik zuzendu behar ditugula geure arazoak, alegia.

Elkarte honetan ez genduke etxeak merkeago egiteko bakarrik sartu behar. Koperatiba batekin dituen hartueman, arazo eta legeetan bat eginik, geurekoikeriak alde batetara utziaz, gizarteko beharrei erantzun jator bat emateko baizik.

Xabier UNANUA

MATIAS EGIGUREN

OGITEGIA

Diaz Enparantza, 1
Urrutizkiña: 83 11 51
— ZESTUA —

BAR-RESTAURANTE

'TXOKO'



Jesusen Biotzaren Kalea, 3
Urrutizkiña: 83 11 96
— ZESTUA —

ARATEGIA TA TXERRIKITEGIA

M. Iriondo

Joseba Deunaren Kalea, 17
Urrutizkiña: 83 10 05
— ZESTUA —

«ELIZ-ONDO» Zine aretoa

AGURRIK BEROENA ZINE ONTAKO IKUSLEOI TA JAIRIK

ATSEGINENAK IGARO

Eliza, 1

— ZESTUA —

“Portu”

BAR-JATETXEA


EUSKAL GIROKO JATOKIAN
EUSKALERRIKO JATEKOAK

Jesusen Biotza, 1

Urrutizkiñak: 831096 - 831050

— ZESTUA —

UZTAPIDE Jatetxea



Jesusen Biotza, 5

— ZESTUA —

Z E S T U A

Eusebio Elortza

MERTZERIA

Natividad, 7

Urrutizkiña: 83 11 39

— Z E S T U A —

Onenak erredizak

ERA GUZTIETAKO ERREDIZEN SALMENTA

San Jose, 14

Urrutizkiña: 83 10 81

— Z E S T U A —

Alkorta

GOZOTEGIA - AKEITETXEA

Jesus'en Biotza Kalea, 7

Urrutizkiña: 83 11 95

— Z E S T U A —

“DANONA” ETXEGINTZARAKO KOOPERATIBA

ETXEGINTZARAKO KOOPERATIBA

Eliz-Ondo Etxea

Urrutizkiña: 83 10 72

— Z E S T U A —

Gaztañaga Anaiak

—oOo—

ETXEGINTZA

—oOo—

Gurutze Doneko kalea, 9

— Z E S T U A —

ZUNZUNEGI- ren SEMEAK

BASO TA GANADU

BALIATZAILLEAK

Urrutizkiñak: 831112 - 831003

— Z E S T U A —

«La Natividad»

JAN-EDATE GAJETAKO KOOPERATIBA

San Jose, 9

Urrutizkiña: 83 10 25

— Z E S T U A —

«ARGIA» TXIMIST-INDAR DENDA

«PHILIPS» markako etxe-elektrikazko makiñak zabaltzen dituana
Nolanaiko elektrika-lanak egiteko ta okerrak konpontzeko langintza

Gurutze Doneko kalea, 14

— Z E S T U A —

ETXABE

Moto Txirringak (Ciclos ETXABE)

MOTO - TXIRRINGA KONPONKETA
ETA ERAGUZIETAKO SEGURUAK

Urrutizkiña: 83 11 06

Díaz Enparantza, 2

— Z E S T U A —

UZKUDUN Aragiteria

Jesusen Biotza, 5

Urrutizkiña: 83 10 23

— Z E S T U A —

'UGARTE' BURNITEGIA

BURNITEGI GUZITARIKOA - TXIMIST - INDAR SALGAIK

Jaione, 15

Urrutizkiña: 83 11 54

— Z E S T U A —

Guztiok'bat, S. A.

Bilgiñak-Tornos-Tours-Lathes GURUTZPE

EGOKIZ	—	SALNEURRIZ	—	SERBITZUZ	—	EZAUGARRI-ZABALDUA MUNDUAREN BOST ALDERDIETARA
CALIDAD	—	PRECIO	—	SERVICIO	—	MARCA DISTRIBUIDA EN LOS CINCO CONTINENTES
QUALITE	—	PRIX	—	SERVICE	—	UNE MARQUE DISTRIBUEE DANS LES CINQ CONTINENTS
QUALITY	—	PRICE	—	SERVICE	—	A BRAND DISTRIBUTED IN THE FIVE CONTINENTS

GIZA-TALDE BAT ELKAR-LANEAN, ERRI ATZERRIETAKO BURNIGINTZAREN SERBITZU BETEAN
UN EQUIPO DE HOMBRES AL SERVICIO DE LA INDUSTRIA NACIONAL Y EXTRANJERA
UNE EQUIPE D'HOMMES AU SERVICE DE L'INDUSTRIE NATIONALE ET ETRANGERE
PEOPLE TO THE SERVICE OF NATIONAL AND FOREIGN INDUSTRY

Urrutizkiña: 83 11 47 *
Telegramak: GURUTZPE
Telexa: 36293 GUBAT E
ZESTUA (Gipuzkoa)

Apartado 1.388
DONOSTIA

C. E. A. Lantegiak


ETXEBERRIA'TAR APOLINAR

BAITUTAKO ERREDIZAK ERAUNZTEKO ETXEA, BEZERUEN ESANERA

Industri - Auzoa

— Z E S T U A —

Urrutizkiña: 83 10 27



Gure Ikastola

Gure herriko jai nagusien atarian, egokia derizkiot joan den ikastaroan Zestuako ikastolak izandako gorabehera batzuk aipatzeari, datorren ikastaroa arnas berriturik has dezagun.

Igazko "Amabirjinak" inguruan bildu zen batzorde berria, eta berehala ekin zion lanari.

Urtean zehar izandako arazoak ordea, bata bestearengandik berezirik agertuko ditugu.

DIRU ARAZOA

Joandako ikastaroaren hasieran, Zestuako ikastolak zorrik ez zuela esan dezakegu. Zerbait ordaintzeko bazegoen, baina hartzekoak eare bazirenez gero, hutsetik hasi zela esan behar.

Batzordeak egin zuen lehenengotako lana, ikastaroko eralgizuna prestatzea izan zen, Urola ibarreko ikastola elkartearekin bat eginez. Egindako eralgizuna, hau zen:

Haurrak	Urteko kostea	Urteko sarrerak umeen kuotetatik	Urteko akatsa
144	691.200 pta.	373.190 pta.	318.010 pta.

Urtea igaro ondoren, eralgizuna egin zutenek bete betean asmatu zutela esan behar. Hasieran pen-tsatu bezala egin bait dira gastoak.

Zerbait hauek ordea, zehatzago azter ditzakegu, ondorio batzuk atera ditzagun:

144 haur zestuak ibili da aurten ikastolan. 70 Loiolan (sei urtetik gorakoak) eta 74 (hiru eta sei urte bitartekoak) Zestuako elizaren gelaletan: zentroan alegia.

Hilero gutxienez ordaindu behar izan dutena hau izan da:

200 pta.	sei urte arteko haurrek
225 "	zazpi eta zortzi urteko haurrek
250 "	bederatzi eta hamar urteko haurrek

Horretaz gainera, autobusa erabili duen haur bakoitzak, 75 pta. ordaindu du hileko.

Baina ordaindu dutena, ez da eskatu direnaren % 53ra besterik iritsi.

Haur bakoitza batzuek, 400 bat peseta kostatzen bait da, hileko, eralgizunak adierazten digunez.

Gainontzeko % 47, akatsa alegia, laguntzaileek ordaindu dute.

Bidezko da ordea, lezakean gurasoak, eta horietakoak badira gure artean, bere haurrak egiten duen zuloa oso osorik betetzea, eta eskabide berezi bat egin zaie aurten gurasoei, ahal dutena eta ez gutxienez eskatzen zaiena, ordain dezaaten.

Lehen ikusi dugunez, 318.000 pta. koa zen ikastarorako akatsa, eta bi bide hartu zituen batez ere batzordeak, nolabait zorra berdintzearen:

Jaialdi batzuk antolatzea eta laguntzaileak ugaritzea.

Aurten beraz, hiru jaialdi antolatuta dira Eliz Ondo antzokian urtean zehar, ikastolaren alde.

Laguntzaileak ere, ugaritu dira aurten, noski. Herriko industria eta denda jabeek, eskabide bat bidali zitzaizkien ikastolako zenbait zehaztasun emanaz.

Horri esker jasotako laguntza, eskertzekoa da benetan.

Herriko Inagileei ere, dei berezi bat egin zitzaizkien, ikastolaren alde hilero ordu extra bat beren lantegietan sar zezaten. Eta ez zen deia hutsean gelditu alajaina! Joan den Ekainerako 75.000 pta.aren laguntza emana zuten Zestuako langileek.

Herriko gazteriak ere, ez du lorik hartu ikastolari laguntzeko lanetan, eta gure esker ona merezi dutelakoan gaude.

Ikusten dugunez, zeharo herriko dugu Zestuako ikastola, inork besterik usten baldin badu ere.

Haurrak	Urteko kostea	Urteko sarrerak umeen kuotetatik	Urteko akatsa
144	691.200 pta.	373.190 pta.	318.010 pta.

ARRUA GOIA

Joan den ikastaroan, ikastola iri-ki zen Arrua Goian.

24 haur hasi ziren, elizak eskainitako gela batetan, andereño baten ardurapean. Ikastaroaren zehar ordea, ikastola utzi egin dute haur batzuek.

Ikusten denez, alboan dagoen eskola nazionala, lau urteko haurrak hartzen hasi zen. Batera ala bestera bidali, hilero 125 pta.ko aldea ikusi zuten guraso batzuek non-bait, eta dena den, umeak ordu batzutarako etxetik norabaitera botatzea besterik ez zuten nahi. Non ote dago guraso horien euskalduntasuna? Badago bai lanik franko gurasoak hezitzen, ikastolak irau-ngo badu.

ARRUA BEHEA

Arrua behean ez dago oraindik ikastolarik. Gela aldetik zenbait erraztasun badela dirudi, baina oztopoak ere ez dira falta. Bi dira batez ere nagusienak:

1.—Haur taldea osatzea. Aurten, hamar ume ibili dira Zestuara etorriaz, baina beste hogeit bat behar-ko lirake gauzak itxuraz eramateko.

Debaldeko erdal parbularioa ere, egin berria dute.

2.—Joan etorri arazoa. Joan etorri arazoa ere, konpontzeko dago. Behin sei urtetik gorakoek, Loiola-ra joan behariko lukete oinarri he-zeria egitera, eta autobus arazoa zuzentzea ez da erraza.

Badirudi umaia eta Zarautza joa- teko egokiera hobea izango dutela,

baina herri horietako ikastolak ez daude legepean oraindik.

Dena dela, oztopoak gaintzea da gure eginkizuna.

PEDAGOGIA ARAZOA

Joan den ikastaroan, hitzaldi bat edo beste emana du aita Goenak haurren psikologiari buruz. Ikastola-ko umeen gurasoentzat antola- tuak izan ziren batik bat, eta saio guztiz interesgarriak izan zirela ai- tortu beharrean gara.

Horretaz gainera, guraso eta irak- seleen arteko hartuemanak indar- tzearren, egun jakin batzuk izen- datu ziren, haur bakoitzaren berri andereñoek eman zzeaten.

Maiatzean, bilera bat egin zuten irakasle eta gurasoek, ikastolan zer eta nola irakasten den aztertze- ko. Galdekizun batzuk ere, zabaldu zi- tzaizkien gurasoei, baina zoritxa- rrez, oso erantzun gutxi jaso zen.

Bakoitza bere haurrez eta ikas- tolaz gehiago ardura dadila eskatu- ko genieke gurasoei. Irakasleekin eta ikastolako arduradunekin hi- tzegin, gauzak galdatu eta hezi di- tezela. Ikastola ez bait da semeak uzteko leku bat.

ETORKIZUNA

Bi gertakizun berri sortu zaiz- kigu batez ere, ikastolaren etorki- zunari begira, garrantzi handia izan dezaketanak.

Erdal parbulario berriak eta oi- narri hezierako legea.

Erdal egunkarietan irakurri du- gunez, egundoko dirutzak ematen ari da estadia, parbulario nazio- nalak Gipuzkoa eta Bizkaian ba- tik bat egin ditezten.

Guztiok dakigu, ikastola eta es- kola nazionalak ez direla berdi- nean jokatzeko ari. Zailtasun eta oztopoak besterik ez dira batzuen- tzat, eta nahiko diru eta errazta- sun besteentzat.

Guk ordea, geureari benetan eutsi nahi baldin badiogu, badaki- gu nori lagundu behar diogun. Ikastola, guraso eta laguntzaile guztiok aurrera aterako dugu, eta ez beste inork. Ez gaitzen beraz, mirarien itxaropenetan egon.

Oinarri hezierako lege berria de- la-ta, behar diren baimenak eskatu dira, Urola ibarreko haurrek ha- malau urterarte Loiolako ikastolan jarrai dezaten.

Euskal heziketa osoagoren jabe egiteko, hamalau urterarte ikas- lan jarraitzea garrantzizkoa denik ezin uka.

Eta besterik ez gaurkoz. Ea gu- raso eta laguntzaile guztiok ikas- tolaz arduratzen garen; guztion premia izango du-ta.

Jaialdiak ondo igaro eta zorionak

BEGI

Z E S T U A

PARROKIAREN BURUAUSTEAK

Erria aitatutakoan, Parrokia ere aitatzea egoki da, erriaren sustraieta-ko bat da-ta. Parrokia: ez noski arrizko etxea bakarrik; orren inguruan sortu bear duan bizitza guztia.

Arrizko etxetik as gaitezen. Zauri aundiak zeuzkan, eta lan aundiak artu behar izan ditu gure eliztar-taldeak Parroki-eliza sendotzeko. Esta-duko agintariei ere laguntza eskatu zitzaizkien, baiñan alperrik. Eliztar- taldearen bizkar gelditu dira lan guztiak. Eskerrak, onek esku zabalez erantzun duala. Eta esango nuke, orrela obeto konturatu dirala, etxe ori beroiena dutela eta beroientzat dala. Eliza guztiona da, izan ere: ez apaizena bakarrik. Guztiona da arrizko etxea eta guztiona eliza bizia ere. Au da Parrokiaren oinarri-oinarrian egon bear duen egia aundi bat. Orregatik eliz-talde osoak parte artu behar du elizan: bai elizkizunetan, bai erabakiak artzerakoan, eta baita Parrokiaren beste ekintza guztietan ere. Guztiok berdin, ez: bakoitzak bere eginkizuna du, baiñan guztiok itsasontzi batean goaz eta kai batera iritzi behar degu. Orrela jokatzeko naiko lan izango degu, baiñan bide ortatik jarraitu behar degu, zalan- tzarrik gabe. Arrizko eliza aitatzean, gogora dezagun ermita ere. S. Joan- go ermita orain berritu da. Auzolanean egin da lana eta oso ederki gelditu da, ia erorian zegoen baseliza. Eta, ermita berritzeak, bihotzak ere berritu dituala, esango nuke.

Aldaketa asko izan dira gure garaian: eliz-gaietan ere bai. Ori da beste buruauste bat: zer alda?; nola alda? Aldaketa beharrik egon ez balitz, ez zan Konziliorik egingo. Gaurko arazoak betiko egien argiare- kin argitzeko egin da Konzilioa; eta ori bera egin behar du Parrokiak ere. Gaurko arazo asko berriak dira eta gaurko munduari argi egin bear dio Elizak: egia berriak sortuta, ez; era berria sortuta. Lehengo oso osorik galdu eta ezer gabe gelditzea, utsegite aundi bat izango litzake; baiñan, arazo berriei era zaharrarekin bakarrik erantzutea, beste utse- gite aundi bat. Ez da errex ikusten lehengotik zerk jarraitu bear duen eta berritik zer artu behar dan, baiñan lan ori ere nai-ta-nai-ekoa da.

Aurrak, gazteria, aundiak... Kristau-ikaskizunetan ikasiak izan ditezela: umetxoei, umetan behar dan argia eman dezaiegula, gazteei, gaztetan behar dan buru argitzea egiten lagundu dezaiegula, aundiok ere beti ohitura ala zalako egiten ziran elizako eginkizun asko. Ohitura oiek aldatu dira, eta, bakoitzak berak ikusten ez badu jokabide bat ona dala eta beste jokabide bat txarra dala, oso errex jo dezake bide txarretik. Orregatik, Kristau-ikasbidea Parroki guztiaren eginkizuna da; gazteek entzuteko eran, gazteekin alkarrizketa izaten saiatzea, Parroki guztiaren eginkizuna da; aundiok, behar bezela ikasiak eta eziak egoten saiatzea, Parroki guztiaren eginkizuna da.

Zenbat puskateta izan dan urte auetan Euskal Errian! Eta Elizan ere bai. «Eliza» itz orrek ALKARTEA esan nahi du: eta orixe izan behar luke Parrokia ere: alkartea. Ez noski guztiok iritzi berdinak izan behar ditugulako; edozein iritzi berdin ontzat emango degulako ere, ez. Ba- koitzak bere iritziak izateko eskubidea, persona guztiei opa diegulako baizik; iritziarik gorrotagarrienak dituen persona ere, beti maite izan behar degulako. Askoz gehiago degu guztiok bat egiten gaituana, banakatzeko gaituana baiño. Eta, Kristau-sinismena baldin badegu, gehiako oraindik. Ara, bada, beste eginkizun aundi bat Parrokiaren: ezberdiñ izanda ere, maitasunez bat eginda bizitzen saia.

Parrokiak ezin dezake ahaztu behartsuak, gaxoak, zapalduak, espe- tzeratuak... Oiek ahaztutzea Ebanjelioa ahaztutzea izango litzake. Egin- kizun au ere ez da apaizen betebeharrak bakarrik; Parroki guztiaren betebeharrak: eliztar bakoitzak bere gain artu bear duen eginkizuna. Eta gaurko munduari itzegin nai badiogu, au degu itzegiteko erarik one- na: gure beharrean arkitzen diran guztiak laguntzen saia.

Bizitza jator baterako ezitzen lagundu behar du Parrokiak. Politika, sozial gaiak, kultura... ez dira, berez, Parrokiaren eginkizunak, baiñan Ebanjelioaren argia eman behar die eliztarrei gai oietan ere, eta arazo oiei ere erantzunkizunez eltzera bultzatu behar die, bai bakarka eta bai taldeka. Personaren eskubideen alde, berdintasunaren alde, zuzenbide- aren alde, egia-aren alde, guztiei zor zaien azkatasunaren alde jokatzeko, berriz, beste alkarte guztiak baiño gehiago egiten saiatu behar du Parrokiak.

Eta bukatzeko, ez dezagun ahaztu gure Parrokia Euskal Errian da- goala. Eta, Euskal Erriaren nortasuna zapalduko balu, edo Euskal Errian euskaldun izaten saiatuko ez balitz, ez litzake behar bezelako Parro- kia izango.

ANGEL ARANDIA

BAR RESTAURANTE

«El Coyote»

EZ TIRORIK, EZ ZAMORRORIK, BA DA EMEN EDARI BIZIRIK

España Enparantzan, 1

Urrutizkiñak: 831095-831180


— Z E S T U A —

ONDARRABIA

José Ramón Amunarriz

350.000 pezetatik gora etxebizitzak

SALTZEN DITUT



Zuloaga, 4

Urrutizkiña: 64 21 79

— ONDARRABIA —

Salon PARIS

KOSMETOLOJISTA

ILLE-MOZTEGITEGIA - Usaigozotegia - APAINTEGIA
Santiago Kalea Urrutizkiña: 64 10 10

— ONDARRABIA —

BONBOITEGIA - PASTELTEGIA

HAWAII

Santiago Kalea Urrutizkiña: 64 17 58

— ONDARRABIA —

optika «BEGI»

FOTOAK - ZINEA - BARRUKO ANTIAJUAK

Miramar, 8 Urrutizkiña: 64 13 26

— ONDARRABIA —

“LA HERMANDAD”

BAR ETA JATETXEA

EUSKALERRIKO JAKI BEREZIAK

Zuloaga Kalean

Urrutizkiña: 64 27 38

— ONDARRABIA —

RAFAEL

BAR ETA JATETXEA

Ezta eta bataiotarako jatetxe egokia

San Pedro, 18

Urrutizkiña: 64 27 34

— ONDARRABIA —

HENRIETTE

PARIS-en «STENDHAL» Institutoak
Franzes Esthetizien bezala diplomatua
BARKAIZTEGI Etorb.
Aurrezki Kutxa Etxean Urrutizkiña: 64 13 78
— ONDARRABIA —

Ignazio Ugarte

SALEROSTEGI - BUNITEGIA

San Pedro, 28

Urrutizkiña: 64 14 55

— ONDARRABIA —



CAJA LABORAL POPULAR

LANKIDEEN AUZO AURREZKI ONTZIA

Zuk aurreratutako diruaren bidez, langille askori, bere lan-sari erpiñetik irtetzeko bidea sortuko diegu.
JAIALDI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

San Pedro, 7

Urrutizkiña: 64 20 41

— ONDARRABIA —

Mercedes Etxebeste Aseginolaza

Era guztietako janariak

Arrantzaleen Bizilekua

Urrutizkiña: 64 14 12

— ONDARRABIA —

LIBURUTEGIA - PAPERTEGIA - DISKAETAN AUKERA

KAI - AMETS

Matxin de Arzu, 1

Urrutizkiña: 64 14 62

— ONDARRABIA —

ARAGITEGIA eta TXERRIKIAK

ATXUKARRO

Etxeetara eramaten da

Santiago, z/g.

Denda: 64 10 96
Etxea: 64 12 39

— ONDARRABIA —

TRANSPORTES



ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381

IKUSI

OIN - ETXE

Jabier Ugarte, 7

Urrutizkiña: 64 23 23

— ONDARRABIA —

LAPITZ

Autoserbizioa

San Pedro, 35

Urrutizkiña: 64 13 60

— ONDARRABIA —

ZERUKO ARGIA BIZKAIKO ERRI AUETAN SALTZEN DA:

MARKINAN

M. Loli Aginaga,
Artibay, 24

SONDIKA-ASUA

E. Astarloa

LARRUSKAIN

Parrokia

GERNIKA

Ruiz Bustillo

ONDARROA

M. Zulaika

BILBAO

Libreria Armendariz
Dr. Arellza, 50
Libreria Azkategui
Cintureria, 4
Libreria Bilbaina
Plaza de los Martires, 2
Libreria Verdes
Correo, 7

GALDAKANO

J. Altuna
Urreta, 34

ABADIANO

J.F. Zubero
S. Prudenziolo, 7

P I N P I L I N P A U X A

ARROPA - DENDA TA ESTANKU

Jabier Ugarte

Urrutizkiña: 64 10 49

— ONDARRABIA —

“SATARKA”

OROITZA TA OTOITZA

Erriko jaiak alaitasuna esan nai du. Gure erri ontakoak, Ondarribi koak, alaiak diranik ezin ukatu. Amabirjiñaren bezperan, antziñeko “Titibiliti” eresiak, alako zirrara bat sortzen du ondarribitar gogo-biotzetan; ta eguratsa ere pozez betetzen da. Kapelu ta gerriko gorritan jauzika, ezin-egonean, jar-tzen da gaztedia.

Txibilitu soinuak eta atabal otsak dana itto nai luke; bestetik ber-din gabeko “alardeak” —ortzadar-raren margoak bereak dituala— dana su ta ke, dana bolbora usai ipintzen du. Jakiña, umore ona ez da faltatzen.

Gaurkoan ordea —eskatu dida-ten lantxoan— su-izkillu zarata ta gañontzekoak alde batera utzita, erritar kuttun baten, lagun baten, Olerkari bikain baten izena gorai-patu nai nuke. Gizon on-utsa iza-na, ixilla. Maitekorra. SAGAR-TZAZU'TAR KAULDI, zituan deit-ura-izenak. Igaz, azaroen, Jain-koak Beretu zuan. (G.B.).

“Zeruan beti udaberri” zion bere olerkitxo batean, eta...

Ainara egora
Txantxangorria gurera
Negutearen igeska...
Negute zitala!
Jun zitzaigun zerura
Betiko udaberrira.

Ta, or zaude Ondarribi kuttuna-ren maitale; gure begirale.

“Agur, nere urizar, Ondarribia Agur, Ama on ta maite-maitia!”

Biotz barruan
Gorderik dedan

Maitasun sutsu eta anitz garbia, Ziñez agertu nai dizut garu bertan, Itz neurtu, gozo ta eztietsuetan.

Itz gozo eztietsuetan... bai, Klau-dio, bai; ziztarekin zulatu ta ere, ez-tia zerion ziñan danak! “Urin gozoa zabaltzen duen baba-lore pozkarria”.

Ta, “urretxindor” ere baziñan zu. Or ditugu zure “Txinpartak” eta zure “Intza-begietan”. “Txindorren eriotza”n onela diozu.

“Udaberri da... bañan aurten urrutian... Eguzkirik ez, ta otza gure lurrian”.

Ta, otzak diardu. Ta, txoria il!

“Txori gaxoa. Oi! belar gañean illik!”

Eta zuk aspaldi batean esanda-koa (pillota-jokuko paretak, pillota biurtzen duen bezelaxe, edo gure mendietako oiartzunak egiten duan legez; zuk esana, zuregana biur-tzen da.

“Zu ziñan gure Euskalerriko txoria Txori aapla, bañan kantari zolia”.

Zu zera txori apala ori; olerkari umilla ori. Abejondeizula!

—OO—

Gaur, bide herriak urratu dituz-te. Orain dana azke, beatz punttak ez dira dantzatzen. Gaurko oler-kiak... alditan txit egokiak; geiene-tan... ixo nadin. Zertarako miñ eman inñori!

Esan nai dedana da, zuk, zure mailla bete zenuala, jakiña, ga-raiangularaiko, Euskal-Olerti zuru-bian. Zure biotzari, inñork ez be-zela kendu zenion ezti-azi gozoa! Nik, amabost urte ntuala yastatu nuen zure azi-tanta; ta olerki mo-duko batzuek sortu baditut, zure erakuspen biotziak izan nitun era-gintzaille. Eskerrakasko.

Giroak eta geroak, noizbait eta norbait mugituko du zure lan uga-ri ta aberatsak aztertzeraz. Yakin-tza, gora-bidean doa gure errian; ta ikaskizunak gallurtzeko, zuk oparoan eskeñitakoak gozatuaz, ba-te-o-bat baliatuko da.

Eta giroak eta geroak... kaletxo-ren bat (Aizu, “Baxurki’ri eskeñi berria diote... Irun’en) opalduko dizutela ziur nago; merezi duzun oroitzapen arriren bat, agian.

Dana dala. Yainkoaren-ete or-tan... Jai-onak pasa; adiskide.

BORDARI



ONDARRABIA, KEZKA TA ITXAROPEN

Ondarrabia herria, Gipuzkoako herririk politena dela uste dut. Sain-duatik hasi eta hondartzaraino, zatika zatika, txaletez eta loretegiz bazter guztiak bete dituzte. Herriaren muiño zaharrak antziñako aurpegia hartu du. Nahiz Jaizubiako ballara, nahiz aeroplanoen soroa apainki dakusgu. Irunen alboan, Bidasoak ireki duan itsas-arte hau, benetan atsegiña eta paketsua da. Nola harritu orduan hainbeste kanpotar honutz etortzen bada.

Baina Ondarrabia ez da zero. Ez da hutsune gabeko herri. Eta izan ere, Ondarribiak dauzkan hutsuneak ez dira txantxetakoak. Begiz ikusten ditugun aurrerapen hoiere artean, Ondarribian ez da gaurko gizasemeari dagokion kezkarik, ez euskal-girorik, ez kultura setarik, ezta larritasun, eztabaida ta burrukarik. Eraman ere, ondo lasai daramazkigu gure as-moak. Gure arteko legea hau da: al dan gutxiena konplikatu eta al dan gehiena irabazi. Geroko etorkizunak ez digu miñik ematen. He-mengo goseak txilborrean amaitzen dira.

Ondarrabia herria kanpotarrentzat egindako herria dela esango nuke. Bertakoentzat ez da fabrika haundi xamar bat. Arrantzaleentzako ez dago kai egoki bat. Gazteentzat ez dago kirol aterpe bat. Eta gauzak doazten bezala badoaz, laster ez zaigu geldituko baserri bakar bat. Euskalerriko alderdi hauen txukuntasuna zaindu behar dala? Bai noski. Eta gorde ez bada, zergatik izan da? Batzuen interesak ondatu dituzte lurralde hauen ikusmira, eta orain berriz, beste batzuen interesak —txu-kuntasunari buruz— lotu nahi dute herriko gizonaren etorkizuna. Dena dela, azailleko jo-mugak itoten ari dira herriko buruauste haundienak eta harriak eta txaletak burura igoten hasi zaizkigu. Herri batek ezin dezake sakontasun haundirik izan, traineru bat dela ez dela sakabana-tzen bada. Bitartean, gure mentalidade zarpillak eta gain-gaineko prole-mak ez gaituzte deus kezkatzen.

Ez dakit beltzegi jartzen ari ote naizen gauzak, baina gaurko nere asmoa kritika garbi bat egiteko asmoa da, nahiz eta kritika beti sumin-garri badirudi ere. Itxaropena daukanak bakarrik egin dezake gizarte-aren kritika. Eta ni, gaurko partez biharkoari begiraturik, kementsu ar-kitzen naiz. Badakit gauak eguna dakarren bezala, Ondarribiako aliena-zioak beste haize berriak eta hazi-nahiak ekarriko dituela.

Noiz? Nondik? Nola? Auskalo! Nik uste det, orain hazten ari dan gizaldi berriak emango digula, guk eman ez degun erantzuna. Gure ondorengoak indar haundiakin datoz. Egia esan, Ondarrabia herria sustrai oneko herria da. Ahitu gabea. Estremismoz jan gabea. Ideologiaz porro-katu gabea. Hemengo taldeak instrumentalizatu gabe ikusten ditut. Gauza hoiak horrela dirala, hazi mardula botatzen bada, nahiz eta bakan bakan, herri jatorra sortuko da. Horrek ematen dit itxaropen.

ALAPA

SUPERMERCADO

Janari-edari aukerakoak

Santiago, z/g.

Urrutizkiña: 64 15 40

— ONDARRABIA —

ONDARRABIAN

EUSKAL JAIA

Gure herriko jaiak soinu handikoak izan ohi dira. Aspaldiko guda-oihartzunak badihardute; tiro ta pum!... alboan kantinera xarmenta da-ramatela. Bai, ikusgarriak benetan gure festak.

Hainbestez, ordea, ez dira asetzen gure gazte-bihotzak, eta lo zo-rron dauden zonbeit herritar nahi genituzke esnatu. Horretarako, Eus-kal-jaialdi bat prestatuko dugu. Nolako? Egun-egungo gure abesti eta abeslariak behar bezela ezagutzen ez ditugula pentsatzen dugu.

Horregatik Ipar eta Hego, sortalde eta sartaldetik, Xuberotarrak ahan-tzi gabe, etorriko dira gure herrira, heuren kantu hunkigarriak eskein-tzera. Gurekin izanen ditugu Xabier Lete, Lourdes Iriondo Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Peio ta Pantxo, Beñat Sarasola, Labeguerie Ortiz-ada-rrak eta abar. Eta, zendako ez? Bidasotar bat edo bestek ere parte hartuko dute.

Iraillaren 9an, arratseko bederatzti orenetan, zezen-plazan izanen da jaialdia. 5.000 personarentzat bada toki. Ia betetzen dugun gure plaza. Ongi etorria danori.

GAZTE-MOTXOKARA

DROGATEGIA - GALARZA USAIGOZOTEGIA

San Pedro, 67

Urrutizkiña: 64 12 40

— ONDARRABIA —

AMUNARRIZ eta Cia., S. L.

ETXEGINTZAK

Domingo Egia, 1

Urrutizkiña: 64 16 54

— ONDARRABIA —

ALONSO Drogategia

— PAPER MARRAZTATUAK
— GARBIKETARAKO GAIK

Santiago, 4

Urrutizkiña: 64 22 82

— ONDARRABIA —

Luisa Arrandegia

Matxin de Arzu, 1

Urrutizkiña: 64 17 57

— ONDARRABIA —

ALDI-ON

ARRANDEGIA

Machin de Arzu, s/n

Urrutizkiña: 64 18 73

— ONDARRABIA —

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR

M. Gorostiza

EIBAR

Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanku, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraui
Urizar
Sigle XX

NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza

Nekazari gazteen elkarteak

Emengo baserriarren sindikatuari "hermandadea" deitu ohi diogu, Espainiako nekazarien sindikatoak "Hermandad nacional de labradores y ganaderos" izena bait du. Azkeneko batzar nagusian hermandadeari adar berri bat sortu zaió: nekazari gazteen elkarteak. Eta gazteek beren gogo eta ametsak batzarren aurrean azaldu zituzten. Denen izenean elkarteko lehendakari dan Fernando Sanz Pastor-ek itzegin zuen.

Ara zer esan zuen beste gauza batzuren artean: "Nekazaritza gazterik gabe gelditzen ari da. Bario duten guziak baóoaz. Orra or noiz-nahi entzuten ditugun itzak eta nazioari eta guri bildurra emateko modukoak. Nazioari, aurrera bultzatzea eta eragin-gotien gazterik gabe, nekazaritza iltzera doalako; eta guri, gelditzen geran gazteoi, laioenak joaten ikustean, ez ote genduke ohe alde eginda? ez ote dugu okerreko bidea artu nekazaritzari eitzean?, pentsatzen dugulako.

Zergatik doaz laioenak?

Lehenbizi ez dalako irabazten, ez dalako etorkizunik ikusten, eta bigarren gazteok ez daukagulako gure ideak azaltzeko biderik, eta gure nortasuna osatzeko modurik.

BIDEAK IREKI

Nekazari gazteak bere etorkizuna eratzten parte ar dezan, bideak ireki behar ditugu, eta ortarako sortu da hermandearen barruan gazteen elkarteak. Elkarte onek, nekazari gazteen eskubideak aurrera aterata nahi ditu, nazioko beste edozeinekin bezalako bizimodua eta etorkizuna izan dezan nekazariak ere.

Egitura berriak sortu behar badira sor ditzagun, eta berriak behar dan guzia berriak; baiña etorkizun on bat nahi dugu, beste edozeinekin parekoa; ez dugu izan nahi nekazariok bigarren mailako gizonak.

Nekazari gazteak, beste edozeinekin aifnako eskola behar du, gero berak erabaki dezan, nekazaritzan gelditu, alaxe nahi duelako, ala beste zerbaitetara joan. Gelditzea erabakitzen duenari, nekazaritzako teknika berriak ikasteko era eman behar zaió, orain nekazaritzan aritzeko ez baita aski gurasoengandik ikasia.

Badakigu datozen amar urtetan milloi batek utziko dutela nekazaritza, eta emendik ogei urterako, oso gutxi izango gerala lantegi ortan ariko geranak. Gutxi izango gerala ordea, ez du esan nahi, nekazaritzaren beharrik ez dala izango, geldituko geran gutxi oien artean, orain alako bi edo iru janari sortu beharko bait dugu.

ETORKIZUNA GARBI AZALDU DIZAIGUTELA


Gazte askok nekazaritzatik alde egin beharko du, eta oientzat ogibide bat ikasteko era eta bizimodu berri bat asteko laguntzak eskatzen ditugu, beren etxea eta erria utzi beharrean gertatzen diran ezker, ez ditezela gerta gizartearen azkeneko maillan geratu beharrean.

Gelditzen geranok, berriz, ara zer nahi dugun: adierazi dizaigutela garbi zer etorkizun daukagun, nondik jo behar dugun, eta eskura dizaizkigutela etorkizun ori iristeko bideak eta moduak.

Eginkizuna ez da erreza, baiña gaztea ez du zailtasunak ikaratzten.

Badakigu gauzak ez direla gauetik goizera konpontzen, baizik egunero lan eginez eta saiatur, baiña saiatzeko, etorkizunaren itzaropena eman behar zaió nekazari gazteari.

Nazioak behar duen aintab janari sortzeko kapaz izan nahi dugu, eta beste edozeinekin bezain merke gainera. Ez dugu nahi, nekazaritza ekonomiaren al-



Nekazaritza gazterik gabe gelditzen ari da.

derdi ahula izan dedin, beti laguntza beharrean eta noiz-nahi lur jotzeko arriskuan. Nekazaritza eta ganaderitza edozein industria bezain diru-emangarri izan ditezke gaur edo bihar.

Mugak eta esiak erortzen diranerako, Europako nekazariarekin konpetitzeko prest jarri nahi dugu, bai baitauzkagu aiek aintateko girra, lurra eta lanerako gogoa.

Europar badira nekazari gazteen elkarteak, Frantziako C.N.J.A. esate baterako, orain dozana bat urte sortua; alere Frantziako nekazaritza eraberritu duen motor indartsuena. Gure elkarte au, oien antzeko izatea, nahi genduke.

ESKABIDEAK

Elkartearen asmoak eta araudia azaldu ondoren, eskabide batzuk egitera noakizue. Emen batzarrean zaudeten guzoi, hermandearen ordezkariak eta erantzunkizuna daukuzten ezker, lagun dizaiguzuela gure elkarte au martxan jartzen. Errietako hermandadetako buru diranei, egin dezatela billera bat beren erriko gazteekin gure elkartearen berri emateko. Kamareetako presidenteei lagun dizaizkizue gure ordezkari errietako taldeak martxan jartzen".

alkartasunean, ez baitaukate, oraingo erremintekin, lanak aixa egin ezinik; eta baserri koskor bie eitekin polita kendu ere bai.

Era berean, jai egunak ere kaletarren antzean, biz bat beintzat lasai igarotzeko era izango luteke: bat ganaduekikoa egiteko geratzen dan bitartean, beste artu emázte eta aurak eta bere gogoko joan-etorri bat egiteko libre. Gaizki al legoke?

Alde ederra orain artekoaren ondoan: or etxetik irtezeko astirik gabe egon geran ordez.

Asko biltzek, lan luzeagoak eta okerra ere, erre-xago ekar dezake, nere iritzi; baiña binaka eta orrela, asiera errexagoa beintzat.

Auxe da ba nere iritzia, eta... zu baserriar irakurle, ez geratu au irakurtzean esanaz: ori ari dek esaten eta ez litzake gaizki etorriko, baiña nork egingo du?... je... bestek egin bear al dizue? Asi, asi zeure aldetik gauza zuzentzeko gogoz, aal dezuna egingen, eta bear dan kondiziotan eta egokieran gauzak ipintzen eta ipinarazten. Au egiten ez degun bitartean, alper alperrik ari gera gazteei aitzakia ezartzen.

Bere ariari eusteagatik, ez badu inorentzat erretxatun jarri nai, baserriaren aurrerako jarraibide aundirik ikusi gabe joango da onelako gurasoa. Ori begien aurrean dago.

«Goieritar emakume bat»

BERRIAK

E. BARREIROS NEKAZARI

Garai batean diesel motorrak eta gero traktoreak, kamionak eta autoak egiten zituen Barreiros, nekazari bihurtu da eta ganaderitzan asi.

«Puerto de Vallehermoso» izena du baserriak eta Ciudad Real-en dago, Mancha-ko bihotzean.

5.000 h. lur, lehen auntz eta ardién pasia-leku gehiena, tartean mahasti batzuk, eta aranetan gari eta garagar soro. Gaur 5.000 h. oietatik 500 erregriatzen direla jarriak daude, 3.000 belardi edo ganadu jate-netarako eta 5.000 buru mantentzen dituzte behi eta zekor.

Dena berriro egina dago, orain iru urte ez baitzegoen an olakorik ezer. Lau zatitan daude ganaduak:

1. Sei zezen, Frantziatik ekarriak. Txarolesak. Zezen auen eta auen «gurasoen» artean 250 sari atereak dituzte Frantziako nor-obego leia-ketetan.

2. 200 behi txaroles puruak, 1969garrenean Frantziatik ekarriak. Auetan ere saridun asko.

3. 2.500en bat behi avilleña eta retinta arrazakoak. Larrean dabilta berrehunakako taldetan, sail bakoitzean 5 zezen txaroles tartean dituztelarik.

4. 3.000 zekor azitzen eta gizontzen, lekuko behi eta zezen txarolesaren umeak.

Baserriar negariak esan ohi du kaletik baserriar ez datorrela inor ere. Ara or bat. Ez duela beak atxurean egingo? Ez noski. Baiña lehen industriar jarria zeukan dirua, orain nekazaritzan jarri du. Zergatik ote?

Bestalde zer pintatzen du, urtean dozenerdi bat zekor ateratzeko gau eta egun lanean ari dan baserriararako olako baten ondoan?

ARRIJASAK

Nekazaria kazkabar eta arrijase bildurrez bizi da, baitipat, aurtengo udan bezala, lehorte baten ondoren, tximista eta trumoiá jotzen, asten duenean.

Egun auetako periodikuak ba dakarte, an eta emen, zenbat milloiren kaltea izan danaren berri.

Baiña, ikusten danez, zenbait tokitan prestatu egin dira arrijasaren kontra.

Jucar-ko erriberan eta Ebro ibai ertzeko arroz-soroetan, laioei su-ziriak tiratzen dizkiete, eta arrijasa eta kazkabaretik libre dira aurtan ere.

Inbentua egiña dagoen ezker, merezi luke alde guzietara zabal dedin.

ESKUALDEAK

Geografia ikasi beharrean gaude. «Region agraria del norte» Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak osatzen dute, eta uztailaren 13ko boletiniak dakarrenez Victoriano Calcedo Ordoñez jauna egin dute eskualde ontako buru. Gizon au, karreraz, albaitea da.

IMANA AUSNAR-TOKIAN

Behiak iltze bat edo alanbre pusketa bat irentsi dezake belarrarekin edo lastoarekin batera. Gero izaten dira kontuak, iltze orrek esteren bat zulatzen badio behintzat.

Erremedioa aterata dute: iman txiki bat. Behiari ezarriko zulotik sartzen zaió janaria ausnartu aurretik dijoan urdailleraiño eta an gelditzen da.

Ondoren behiak alanbre puskatzen bat jaten duela? An geldituko zaió imanari itsasia, ez du ausnartzean mugituko, ez zaió estetaraiño iritxiko, eta ez dio kalterik egingo, nahiz-eta bere bizi guzian, barruan eraman.

Iman ori Inglaterrako Sheffield enpresak saltzen du. Eroslerik gehienak, lasto alanbreak eta itxiturretan arantzadunak erabiltzen dituzten ganaduzaleak omen dira. Arrisku aundi bat kentzen zaió behiari.

PIZTIAK UXATZEKO

Illarra edo arbia erein eta txoriak jaten dizula? ez ibili txorimaluak, txorizugarriak jartzen. Aleari nahastu zaiózu «Agil Seed Aaves» autsa. Ez du usairik, ez du pozoniarik, ez dezaieke gaitzik egin etxeko aurrei ere, baiña txori, pizti, sagu eta xomorrontzat gusto txarra ezartzen die aleei eta ez dizkizue jango.

Aziari nahasten zaió, % 1ean. 25 kilotako zakutxoetan saltzen da. Inglaterran.

TRATALARIAK

Tratalariak ere elkar babestu beharra nabaitu dute nonbait. «Agrupación nacional de tratantes y comisionistas» deritzan elkarteak sortu dute, ganaduzaleen sindikatuaren barruan. Elkartearen legeak eta araudia ontzat emanak izan ziran joan den maitzaren 5ea. Elburua: tratalarien eskubideak aurrera ateratzea, jakiña.

MATARIFEAK

Aurreko urteetan bezela, aurrena bakoitzak bere probintzian eta gero Espainia guzikoak Cordoban, matarifeak jokatu dute euren txapelketa: zeinek obeto lan egin, zeinek abillidate gehiago ofizioan. Francisco Marco, Huescako atera da txapeldun. Zenbait baserriarrek uste du, sariketarik jarri gabe ere, matarifeak ba daukatela nahiko abillidate, zekorri andik eta emendik, disimulo ederrean, aragi puskak kentzen, gutxiago pixa dezan. Baiña... ez da ala izango.

OILLOA ETA EPERRA

Oilloa eta eper arra kruzatuta txitak ateratzea lortu du D. Felix Perez, irakasle eta inbestigatzaileak. Egazti gogorrek omen dira erdi eper, erdi oillo. Ze izen jarriko diegu? Mandakumeak?

Alkartasun asiera baserrian

Aurreko batean irakurtzen nuenez, baserri txikiak bildu eta aundiak jarriko omen dira, onela komeni dalako besetxeokoren irabazia kalekoaren berdintsua izatera iritzi dedin.

Ba, onen gain nere iritzia ematearren, bi galdera egingo ditut.

1.—Lur biltze ori nola egin, aldameneko kalera dijoan orrek, bere soro eta belardietan piñu kazkar batzuk sartuta alde egin badio?

2.—Lurrak onela bildu eta abereak ere ugalduta moldatuko al da gizon ori, kalekoa bezela, emaztea eta aurak etxean utzita, bera bakarrik, famili osoarentzat aintab etekin ateratzeko?

Nere zail iruditzen zait, naiz-ta aurrerapen guztiak bere eskuan jarri. Gizon bakarra bakar geratzen da, eta izango luke oraingandikoa antzera, andre edo neska-mutiko, aldamenean zerbaiten bearra; eta... andrezkorik ez badator, neska-mutikorik ere ez, ara bat ere ez.

Baiña emen beste erabakitxo bat zergatik ez da artzen? Ba, sailak biltzeari zai egon baino leen, leengo lekuan bi auzotar gizonak alkarrekin lanean ekin, asi goizeko ikullu-lanetatik eta beste, egunak dakazkian egiteguzietan.

Onela eginda, ez legoke ez emazte eta ez beste asko endredatu bearrik, bi gizon sasoiok, onela